**IRITZIA: ENERGIA EREDUA KOLOKAN, ‘PRESTIGE’-REN HONDAMENDIA DELA-ETA /9**




# Goienka

EGUBAKOITZA • 2003ko urtarrilaren 31 • IV. urtea • 96. zenbakia • DOAN BANATZEKOA


**BARRUAN, ZURE HERRIKO ALDIZKARIA**




**Goienka2a**
**Ibar osorako 2003ko gida, ezinbesteko aurkitegia**

**EIDER GANBOA** / HEZITZAILEA
*“Ordenagailua familia osoak ikusteko moduko tokian jartzea ona da”* /7

**KRONIKA**
**The Kagas taldeak Jam-en eskainitako kontzertua /15**

**KIROLA: ATHLETICEKO ETA REALEKO HARROBIETAKO GAZTE DEBAGOIENDARRAK /10**

**ASTEKO GAIA: GERRAKO ZAURIAK ITXI GURAN /3**

# “Desagertuak existitu ere ez zirela egin ematen du”

Gerran errepresioa jasan zuten eta gaur egun, neurri handi baten, desagertuta jarraitzen duten debagoiendarren izen ona garbitzeko ekimena sortu berri da, eta gaur, egubakoitza, egingo dute lehen batzarra. Lehen helburua da batzorde egonkorra osatzea eta hainbat ekimen aurrera ateratzea. Besteak beste, Debagoieneko udalei orduko gertaerak ofizialki salatzea eskatu diete.

Talde horrek ibarreko 95 fusilaturen kasuak aztertu ditu, baina zera diote: “Kasu gehiago ikertzen gabiltza, eta, seguruenik, ehundik gora izatera iritsiko dira”.

- *Sortu berri den talde batek errepresaliatuen izena garbitu gura du*
- *Ibarreko interesatu guztiak daude parte hartzera gonbidatuta*




GOIENKARIA

## Hiru aste greban Chinchurretan

Egoerak bere horretan jarraitzen duelako, biharko, zapatua, manifestazioa deitu dute Oñatiko Chinchurreta enpresako langileek. Rafa Díez eta Joxe Elorrieta LAB eta ELAko idazkari nagusiak Oñatin izango dira, hiru aste greban dauden langileei elkartasuna adierazteko. Chinchurretako langileek bihar, 12:30ean, egingo dute manifestazioa, Oñatiko kaleetan. Bertan, greba egiteko erabakia hartzera eraman dituzten arrazoiak azalduko dituzte berriro.


**Kalitate Gehiago**





**T**odoMueble KABIAn erakusketa zabalena aurkituko duzu kalitate gorenarekin: logelak, egongelak, gaztetxoendako altzariak, bestelako osagarriak, apainketa... Leku eta aurrekontu guztietara moldatzen diren altzariak.

Gure dekoratzaile profesionalen laguntzarekin eta baldintza ekonomiko ezin hobearekin:
- Sei hilabetean, deskontuarekin, eskura ordaintzea balitz bezala. Edo
- Hogeita lau hilabetean, interes barik, eta gura baduzu seigarren hilabetetik aurrera has zaitezke ordaintzen.

Badakizu, ona den guztia **TodoMueble KABIA**n aurki dezakezu.

TODO Mueble DANA ONA Kabía
Gipuzkoa Etorbidea, 28
Tel. 943 79 27 70 • **ARRASATE**


**DEBAGOIENA**

### Lau urte barru martxan egongo da tranbia ibarrean

Lau urte barru martxan egongo da tranbia Aretxabaleta eta Bergara artean. Horixe eman dute aditzera oraingo astean Alvaro Amann Garraio sailburuak eta Antton Jaime Errepideetako diputatuak Aretxabaletako udaletxean. /5

**ARRASATE**

### Arrasateko Udalak herriaren gaineko webgunea sortu du

Interneten *arrasate-mondragon.org* helbidea idatziz gero, Arrasateko Udalak abiarazi berri duen webgunea zabalduko dugu. Eibarko Code&Syntax enpresak egin du webgunea. Informazioa egunez egun berritzeko aukera ematen du. /6

**ARETXABALETA**

### Zazpi milioi euroko udal aurrekontua onartu dute

Astelehenean eginiko osoko bilkuran, Aretxabaletako 2003ko udal aurrekontua onartu zituzten. Zazpi milioi eurotik gorako aurrekontua aurkeztu zuten, eta udalbatzarra osatzen duten Batasuneko eta EAJ/EA alderdiko zinegotzien botoekin onartu zuten. /6


DEBAGOIENA/4-5 • HERRIZ HERRI/6 • IRITZIA/8-9 • KIROLA/10 • NON-ZER/16-17 • SAILKATUAK/18 • BERRI-ZAKUA/19 • ZERBITZUAK/20 • DENBORA-PASA/21

HEZKUNTZA DEBAGOIENEAN

### ‘Familia Osoari Zabalik’ lelopean, otsailaren 3tik aurrera irekitzen da aurrematrikulazio epea bailarako herrietan

# Arizmendi Ikastola nobedadez beterik dator ikasturte honetan




*"Heziketa integrala eskeintzea da Arizmendi Ikastola osatzen dugunon helburua eta, horregatik, beste nobedade batzuren artean, aurten indartu egin dugu gure eskolaz kanpoko zerbitzuen eskaintza"*, azaldu digute Arizmendiko arduradunek. Horrela, umeentzako hainbat zerbitzu interesgarri izango dira, horra hor, antzerki-tailerrak, kirol-heziketaren zerbitzua eta musika heziketarena. Gainera, gurasoei zuzendutako heziketa zerbitzu berezia izango da. Ahaztu barik, kirol- eta kultur-instalazioak, jangela eta ikastoletara garraio-zerbitzuak, jakina.

**Berrikuntza**

Etorkizuneko bokazioa duen eta zerbitzu publikoa eskeintzen duen ikastola-kooperatiba da Arizmendi Ikastola, eta Pertsonak, Erantzun-kizun Konpartitua, Lankidetza, Koherentzia eta Berrikuntza dira bere eguneroko lanaren ardatz nagusietako batzuk.

Berrikuntzari dagokionez, Arizmendi Ikastola XXI. mendeko gizartearen aldaketekin batera eguneratzen doa bere Proeiktu Pedagokikoa, egungo ikasleek, enpresek eta gizarteak dituzten eskakizunei erantzunez.

Gainera, Informazio eta Komunikazioaren Teknologien aldeko apustua egiten du Ikastolak, eta Europako hainbat Erakunderekin lankidetzan ari da, zenbait proiektu komunitariotan.

**Heziketa Integrala Etapaka**

HAUR HEZKUNTZA

**0-2 urtera: lehen urratsak.** Zure seme/alaba bere lehenengo urratsak ematen hasten da eskolaren munduan Arizmendiren eskutik. Umetxoekin talde murriztuetan lan egiten da, euren zentzumenak estimulatuz.

**2-6 urtera: mundua ezagutuz**. Zure seme/alabak jarraituko du bere pertsonalitatea garatzen eta inguruan duen mundua ulertzen hasiko da Arizmendi Ikastolan. Behar ezberdinei erantzuteko, bi heziketa-sistema eskeintzen ditugu: ohizko eskola eskaintza eta beste bat, zabalagoa.

DERRIGORREZKO HEZKUNTZA

**6 urtetik 12ra: gaitasunen garapena**. Etapa honetan ingurua behatu eta ezagutuko du, modu irekian. Ikasle bakoitzaren gaitasunen garapena sustatu eta bultzatuko dugu.

**12 urtetik 16ra: etorkizuna bideratzen.** Bigarren Hezkuntzan, aukera ugari eskaintzen zaio ikasleari eta honek, familiaren eta ikastetxearen laguntzaz, aukeraketa egingo du, bere etorkizuna bideratzen joateko.

BATXILERGOAK

**ibilbide guztiak**

LANBIDE HEZIKETA

**teknologia eta enpresa**



# Gerran hildakoak gogora ekarriz

## *Orduko desagertuen oroimena berreskuratzeko taldea sortu da*

LEIRE KORTABARRIA

Orain dela gutxira arte, isiltasuna izan da lege Espainiako gerran izan ziren exekuzioen gainean. Debagoieneko hainbat lagun fusilatu zituzten orduan –ehun inguru–, eta haien izen ona lurperatuta egon da, orain arte.

**SALATZEKO ORDUA**

Debagoieneko udalek eta fusilatuen hainbat senidek, oroimen hori berreskuratu eta garbitu guran, ekimen bat abiarazi dute. Joan den astelehenean aurkeztu zuten ekimena. Hauxe dute helburu: "Lehenengo, Debagoienean batzorde bat eratu gura dugu, gai hori lantzeko. Batzordea irekita egongo da gura duen guztiarendako, batez ere, udalendako eta fusilatuen senitarte guztiendako". Ekimena joan den astelehenean aurkeztu zuten eta gaur, egubakoitza, izango da lehen batzarra, Arrasateko udaletxean, 17:00etan.

Helbururik garrantzitsuena pertsona haien ohorea berreskuratzea da: "Ibarrean, faxistek 95 lagun baino gehiago fusilatu zituzten. Bestalde, beste hamar lagunen kasuak aztertzen gabiltza. 66 urte pasatu dira gure senideak askatasunarengatik fusilatu zituztela, eta Debagoieneko udalen aldetik ez dugu ikusi horien aldeko adierazpenik, gure senideekin egindakoa salatzen. Ematen du existitu ere ez zirela egin", aldarrikatu zuen taldeak.

Kasu horiez gainera, ibarrean gehiago daudela dio batzordeak, eta horiek ikertzen dabiltza. Fusilatuen gorpuak hobi komunetan edo bide bazterretan lurperatzen zituzten, eta oso gutxi errekuperatu ahal izan dira.

**ERAKUNDE GUZTIEN LAGUNTZA**

Batzordea gaur, egubakoitza, eratuko da ofizialki, eta parte-hartzaileek espero dute ibarreko jendeak lagunduko diela. Horretarako, taldeko kide egin daitezke; edo errepresaliatu gehiagoren edo zerrendan daudenen berri gehiago eman dezakete; edo taldea finantzatzeko ekarpena egin dezakete. Norberak ahal duen neurrian.

Taldeak erakunde guztien laguntza bilatuko du. Adibidez, hobi komunetako indusketak egiten ibili den Aranzadi Zientzia Elkartearena: "Elkarte horren barnean, desagertuen eta fusilatuen gaia lantzeko talde bat eratu dute, eta talde horrekin harremanetan gaude. Debagoieneko jendea ere badago talde horretan. Jaurlaritzarekin ere harremanetan jarri gara. Itxaropentsu gaude", diosku Juan Ramon Garai Debagoieneko ekimen horren eragile eta partaideetako batek.

**ORAINDIK ERE, BELDURRA**

Batzordeko kideen ustez, urteak pasatu diren arren, oraindik eta beldurra da nagusi.

"Artxibo militarrek, horrenbeste urte pasatu eta gero, itxita jarraitzen dute. Artxibo horietako dokumentuekin frogatuko litzateke, adibidez, fusilatu asko aske utzi zituztela hil aurretik, eta beste batzuek, itxurazko gerra kontseilu baten ondoren, exekuzio sumarioa izan zutela", dio batzordeak.

Eguneroko bizitzan ere isiltasunaren legeak pisu handia du: "Gerran eta gerra ondoren gertatu zena ikaragarria izan zen,eta jende asko beldur da oraindik, baita familiartean berba egiteko ere". Horretarako, modu anonimoan informazioa emateko bidea antolatu dute: ibarreko udaletxe guztietan fitxa batzuk jarri dituzte herritarren esku.



AITOR URIZAR

**Debagoieneko udal gehienetako ordezkariak eta fusilatuen hamar senitarteko izan ziren taldearen aurkezpenean.**

*Gaur, egubakoitza, egingo dute lehen batzarra, eta gura duen guztiak har dezake parte*

*Ibarrean 95 fusilaturen berri dute, baina badakite gehiago ere izan zirela*

## Oroigarri bat altxatu nahi dute

**Gerran desagertutakoen omenez, oroigarri bat altxatzea eskatuko die batzorde horrek ibarreko udalei. Hori da errepresaliatuen oroimena garbitzeko egin gura duten ekintzetako bat, baina ez bakarra izango: udalei adierazpen ofizialak eskatuko dizkiete; erakusketa bat antolatuko dute ibar osorako; omenaldi bateratua antolatuko dute; eta kostuak ibarreko udal guztien artean finantzatzea ere eskatuko dute. Ez hori bakarrik: memoria historikoa berreskuratzeko ekimenen artean, Mondragoeko Oktubre Taldeak argitaratu zuen *Octubre* liburuaren bigarren argitalpena prestatzen ari da batzordea, aurrekoari hobekuntzak egin ondoren.**

**MAITE URANGA** / SENITARTEKOA

## *"Interesa duen edonor etor daiteke taldera"*

**Askatasunarengatik hil ziren, eta eurekin dugun zorra kitatzea da gure helburua", dio Maite Uranga arrasatearrak.**



**Ibarrean, 95 fusilatu. Zerrenda itxita dago?**

Ez. Prentsaurrekoa egin eta egun berean jakin genuen, adibidez, Aramaion, bat beharrean, hiru zirela fusilatuak. Gehiagoren berri izango dugu. Ehunetik gorakoa izango da zerrenda.

**Omenaldi bat, oroigarria, erakusketa... Ekimen asko egiteko asmoa duzue.**

Bai, baina hilabete askorako lana dugu aurrez aurre. *Octubre* liburuaren bigarren edizioa ere prestatzen gabiltza.

**Ibarrekook zelan har dezakete parte?**

Interesa duen edozeinendako dago zabalik taldea. Bestalde, udal bakoitzean fitxa batzuk daude, informazioa eman gura dutenendako. Horrez gainera, finantzaketan laguntzeko gertu daudenak ere ondo hartuko ditugu.



IKER BARANDIARAN

Gure ibarrean tren azkararren aurka dauden hainbat taldetako ordezkariek egin dute Tolosako manifestaziorako deia.

# 'Euskal Y'-a "inposatutako egitasmoa" dela salatu dute

*AHTren aurka zapatuan izango den manifestaziora joateko dei egin dute*

ENEKO AZKARATE

**AHT Gelditu! Elkarlana taldeak Abiadura Handiko Trenaren aurkako manifestaziorako dei egin du, biharko, zapatua. Manifestazioa Tolosan izango da, 18:00etan. *AHT gelditu. Inposaketarik ez* lelopean egingo dute. Debagoienetik autobusak irtengo dira harako.**

Euskal Autonomia Erkidegoko hiru hiriburuak lotuko dituen tren azkarrari buruzko egitasmoaren "justifikaziorik eza" eta egitasmo horrek sortuko lituzkeen "kalte ekologiko, sozial eta ekonomikoak" salatu nahi dituzte manifestazioaren antolatzaileek.

Debagoieneko AHT Gelditu! Elkarlana plataformako kideek prentsaurrekoa eman zuten joan den egubakoitzean Arrasaten. Besteak beste, bihar Tolosan izango den manifestazioan parte hartzeko hainbat arrazoi eman zituzten eta herritarrak gonbidatu zituzten kale agerraldian parte hartzera. Prentsaurrekoan egon ziren, besteak beste, hainbat indar politiko, sindikatu eta giza taldetako kideak, baita Arrasateko eta Eskoriatzako udaletako ordezkariak ere.

**'INPOSAKETARIK EZ'**

Prentsaurrekoan adierazi zutenez, *Euskal Y*-a "inposatu egin nahi du Jaurlaritzak." Horregatik, "egitasmoa bertan behera lagatzea" eskatu zuten. Bestalde, egitasmo horrek eragingo lituzkeen kalte eta ondorioen gaineko informazio eta eztabaida zabala bultzatzeko eskaria ere egin zuten.

Debagoienetik autobusak irtengo dira manifestaziora joateko: Eskoriatzan, autobus geltokitik, 16:00etan; Arrasaten, Garibaitik, 16:30ean; Angiozarren, 16:00etan; eta Bergaran, autobus geltokitik, 16:30ean.



## Iban Arantzabalek jaso zuen Sareko Argia saria 2003

Egubakoitzean banatu zituzten Lasarteko Txintxardin Beltxa jatetxean Argia sariak 2003. Sareko saria *Sustatu.com* albistegi digitalari eman zioten. *Sustatu*-ko editore Iban Arantzabalek jaso zuen saria, eskultura bat. *Sustatu*-rekin Goienak sarean apustu handia egin zuela azpimarratu zuen Arantzabalek. Era berean, egitasmo horretan bidelagun dituen Code&Syntax Interneteko enpresaren lana ere nabarmendu zuen, baita *Sustatu*-ko kolaboratzaile, berri eta iritzi emaileena ere. /E.A.

# Barandalla presoa aske lagatzea eskatuko dute

*Hainbat ekitaldi antolatu dituzte asteburuarako*

E.A.

Bautista Barandalla preso nafarraren egoera salatzeko hainbat ekitaldi egingo dituzte oraingo asteburuan Debagoienean: barauraldia, elkarretaratzea, prentsaurrekoa, hitzaldia, giza katea, ur poteoa eta manifestazioa. Ekitaldiok ibar osorako antolatu dituzte eta Arrasaten egingo dituzte. Horrez gain, beste elkarretaratze batzuk ere egingo dituzte, ibarreko herri nagusietan, egubakoitz iluntzean; Bergaran, esaterako, San Martin plazan.

Baraualdia 20:30ean hasiko dute, Arrasateko Herriko Plazan. Zapatuan, ostera, elkarretaratzea egingo dute Herriko Plazan bertan, 10:30ean; 18:00etan, prentsaurrekoa eskainiko dute leku berean; eta, horren ondoren, hitzaldia. Barandallaren senitartekoek, haren sendagileak eta plataformako ordezkariek egingo dute berba ekitaldian. 20:30ean, giza katea egingo dute, eta gauerdirako ur poteoa iragarri dute. Domekan, azkenik, eskualde mailako manifestaziorako dei egin dute, 19:00etarako. Amaieran, bertsolariak izango dira. Ekitaldi horiek guztiak *Barandalla askatu, 92. artikulua orain* lelopean egingo dituzte.

Barandalla 1990eko irailean atxilotu zuten, eta 78 urteko kartzela zigorra egotzi zioten. Ordutik hona hainbat espetxetan egon da, eta gaur egun, Iruñeko kartzelan dago, 2002ko abuztua ezkero, hain justu ere.

Orain dela hiru urte, baina, ultzera peptikoa diagnostikatu zioten, eta, zaintza egokia ez izateagatik, haren egoerak nabarmen egin du txarrera; horren ondorioz, hainbat aldiz erietxera eraman behar izan dute.

*Baraualdia hasiko dute gaur iluntzean, eta domekan, manifestazioa egingo dute Arrasaten*

Iazko maiatzean, Barandallaren baldintzapeko askatasuna eskatu zuten Kode Penalaren 92. artikuluari eutsiz, gaixotasun larri eta kronikoa duelako; baita Iruñeko espetxera aldatzea ere, Nafarroako ospitaleko adituek trata zezaten.



LEIRE KORTABARRIA

Oñatiko alkate Anjel Iturbek harrera egin zien udaletxean Arzalluzi eta Cossigari.

# Cossiga Oñatin izan da, Arzalluzekin batera

*Arantzazun ere egon da Italiako presidente ohia*

E.A.

Francesco Cossiga Italiar Errepublikako presidente izandakoa Debagoienean izan da oraingo astean. Oñati eta Arantzazu bisitatu zituen, astelehenean, EAJ-ko buru Xabier Arzalluzekin batera. Goizean, ongietorria egin zion Anjel Iturbe alkateak udaletxeko arkupeetan eta, horren ondoren, harrera egin zion udalbatzak osoko bilkura aretoan. Otordua, ostera, Arantzazun igaro zuen frantziskotarrekin batera. Cossigak Oñatiko Udalaren ohorezko liburuan sinatu zuen eta gogora ekarri zuen, beste behin, betitik izan dela Euskal Herriaren lagun ona, eta bere jaioterri Sardiniaren eta Euskal Herriaren arteko antzekotasunak nabarmendu zituen.

# Amannek dio lau urte barru martxan izango dela Debagoieneko tranbia

*Garraio sailburua eta Errepideetako diputatua Aretxabaletan elkartu dira ibarreko alkateekin*

GOIATZ ARANA / ENEKO AZKARATE

**Lau urte barru, gutxi gorabehera, martxan egongo da tranbia Aretxabaleta eta Bergara artean. Horixe eman dute aditzera oraingo astean Alvaro Amann Garraio sailburuak eta Antton Jaime Errepideetako diputatuak. Jaurlaritzako eta Diputazioko ordezkariak Debagoieneko alkate guztiekin elkartu ziren astelehenean Aretxabaletako udaletxean.**

Tranbiaren proiektua izan zuten hizpide, eta aurreratutako datuen arabera, lau urte barru, gutxi gorabehera, Aretxabaleta eta Bergara artean tranbia martxan egon liteke.

Gure ibarrean egingo den garraiobide eta komunikazio proiekturik handiena da tranbiarena. Horrela aitortu zuten astelehenean Aretxabaletan batutakoek. Era berean, azpimarratu zuten gurea bezalako ibar batendako, tranbia dela garraiobiderik egokiena, besteak beste, gutxien kutsatzen duena delako. Bestalde, Amannek aditzera eman zuen, tranbiaren proiektuaz gain, garraiobide publikoaren gaineko azterketa osoa egitea komeni dela, Deba ibarra Autonomia Erkidegoko "laugarren hiriburua delako".

**ESKORIATZATIK MALTZAGARAINO**

Eskoriatzatik Maltzagaraino joango da tranbia, eta Euskotrenekin bat egingo du han, Debaraino. Bestalde, Elorregitik Oñatirako beste adar bat egingo dute. Tranbia ez da, baina, herri guztietatik pasatuko, eta, hori dela eta, herritar horiek geralekuetara hel daitezen autobus zerbitzuak ipiniko dituzte.

Edozelan ere, txartel bateratua egongo da. Esaterako, Leintz Gatzagatik Maltzagara joateko garraio mota ezberdinak erabili beharko diren arren, abiapuntuan eskuratutako txartela bidaia osorako baliagarria izango da. Berdin gertatuko da Elgetatik, Antzuolatik edo Aramaiotik irteten direnendako.

**HIRU FASE**

Proiektuak hiru fase izango ditu: lehena, Aretxabaleta, Arrasate eta Bergara artekoa; bigarrena, Oñatirako eta Eskoriatzarako luzapena; eta hirugarrena, Bergaran hasi, Soraluze igaro eta Maltzagaraino helduko dena. Ez da beharrezkoa izango fase bat amaitzea besteak hasteko. Izan ere, Garraio sailburuak astelehenean adierazi zuenez, posible izango da hiru faseak aldi berean eraikitzea.

Trazatu guztiaren proiektua idazteko 1.260.000 euro bideratuko dira eta bederatzi hilabeteren buruan proiektua bukatuta egotea espero dute. Asmoa da aurten proiektua egitea eta datorren urtean lanak hastea. Gauzak ondo joanez gero, hortaz, lau urte barru tranbia martxan egongo da Aretxabaleta eta Bergara artean.

**32 kilometro**

Tranbiaren ibilbide osoaren luzera, Eskoriatzatik Maltzagara artekoa, 32 kilometrokoa da; Aretxabaletatik Bergara artekoa, 16 kilometrokoa. Abiadura 30 kilometro ordukoa izango da hiri barruan eta 80koa herri artean. Aretxabaleta-Arrasate-Bergara tartean 17 geraleku izango dira, guztira, eta mugimendu handieneko orduetan tranbiak 10 bat minutuko maiztasuna izango du.




## LABUR

### Manifestazioa deitu dute Chinchurretako langileek

Egoerak bere horretan jarraitzen duelako, zapaturako manifestazioa deitu dute Oñatiko Chinchurreta enpresako langileek. Rafa Díez eta Joxe Elorrieta LAB eta ELAko idazkari nagusiak Oñatin izango dira, hiru aste greban dauden langileei elkartasuna adierazteko. Chinchurretako langileek bihar, 12:30ean, egingo dute manifestazioa Oñatiko kaleetan. Bertan, greba egiteko erabakia hartzera eraman dituzten arrazoiak azalduko dituzte berriro: hau da, lan berdinagatik ardura eta soldata berdinak izatea.

### Municheko espetxean dago Elkoro, isolatuta

Joan den asteko martitzenean Nuremberg-en atxilotu, eta barikuan, Municheko espetxera eraman zuten Paulo Elkoro bergararra. Orduz gero, isolatuta dago, eta familiak abokatuak esandakoak bakarrik dakizki. Pauloren aitak, Jose Luis Elkorok, esan duenez: "Telefonoz ere ezin izan dugu Paulorekin berba egin. Abokatuak ondo dagoela eta animotsu ikusi duela esan digu. Oraindik ez dakigu noiz emango diguten lehen bisita egiteko baimena. Bakarrik dakigu hamabostean behingo bisitak direla".



CG CONSULTORIO GINECOLOGICO
Talde osoa emakumearen eskura

| | |
|---|---|
| Jaioaurreko diagnostikoa-ekografia | Antonio Estomba |
| Menopausia | Fernando Cristóbal |
| Endoskopia ginekologikoa | Alfredo Otalora |
| Laguntza bidezko ugalketa | Jose M. Gómez |
| | Ainhoa Larrea |
| Titietako gaixotasunak | Domingo Murgiondo |
| Obstetrizia | Miguel Gabarain |
| Psikosexualitatea | Maria José Ruiz |
| Nerabezaroko ginekologia | Fatima Azkue |
| Hezur dentsitometria | J. Rodríguez |

**Arrasateko kontsultategia:**
**Zerkaosteta 17, behea**
**Tel.: 943 79 20 18**

Policlinica Gipuzkoa

Donostia. Tel.: 943 30 82 08
Eibar. Tel.: 943 12 10 21
Irun. Tel.: 943 61 78 88

OÑATI

## Laster ikusiko dugu GOITB herrian, antena jarri bezain pronto

Iazko irailaren 12an onartu zuen Gobernu batzordeak antena jartzeko aurrekontua, zeini esleitu antena jartzeko lana eta zein sistema erabiliko zen seinalea hedatzeko.

Goienako eta Udaleko arduradunen nahia zen ahalik eta lasterren ikusi ahal izatea GOITB; baina, hainbat arazo administratibo zirela-eta, nahi baino gehiago atzeratu da. Orain, baina, behin arazo horiek konponduta, antena jartzeko ardura duen enpresaren esanetan, Belarretik elurra kendu bezain laster jarriko dute antena. /A.I.

ANTZUOLA

## Antzinako ohituren gaineko Iñigo Ramírezen liburua argitaratzear dago

Antzuola Herria Ikerketa Bekaren laugarren emaitza da Iñigo Ramírez de Okarizen *Antzinako usadio eta ohiturak* liburua. XX. mende hasieratik 1960ra arteko herriko ohitura, usadio eta mentalitateak aztertu ditu Iñigo Ramírez de Okarizek liburuan; eta horretarako, herriko 30 bat edadeturekin berba egin du, eta artxiboko dokumentazioa ere erabili du.

Horrela, pare bat aste barru aurkeztuko dute, ziurrenik, liburua. Izan ere, oraingo astean bertan inprimategitik ateratzekoa zen liburua. /A.I.

ELGETA

## Udalak hasierako onarpena eman zien arau subsidiarioei martitzenean

EAJ-EAren aldeko botoekin eta oposizioaren abstentzioarekin, martitzenean, Udalak hasierako onarpena eman zien arau subsidiarioei. Espero dute erabakia otsailaren 15ean Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean agertzea. Momentu horretatik aurrera, hilabete izango dugu elgetarrok alegazioak egiteko.

Hala, alegazioak aztertu eta Elgetako Udalak behin-behinekoz onartu ondoren, sei hilabeteko epea izango du Diputazioak arau subsidiarioak onartzeko. /O.E.



MONIKA BELASTEGI

BERGARA

## Santa Marina elizaren ondoko zubia garbitzeko eta egokitzeko lanei ekin zieten astelehenean, hilabete eta erdiz lanak geldi egon ondoren

Santa Marinako zubian bi lan nagusi egingo dituzte: batetik, barruko eta kanpoko aldetik zarpeatu egingo dute, arkuak izan ezik, uraren mailaraino, eta horrekin batera, solte egon daitezkeen harriak lotu eta dauden hutsuneak bete egingo dituzte. Bestetik, garbitu ere egingo dute: itsatsita duen landaretza guztia kenduko diote. Gainera, helburua da landaretza behin betiko kentzea, eta horretarako egokiak diren produktu kimikoak erabiliko dituzte. Lanok astelehenean hasi ziren, hilabete eta erdiz geldi egon ondoren. Zarpeatua egiteko orduan hiru irizpide aztertu dituzte Udalean, eta hori izan da lanak gelditzeko arrazoia. Azkenik, zubia Santa Marina elizaren ondoan dagoela kontuan izanda, elizaren hormak zarpeatzea erabaki dute. /M.B.

ARRASATE

# Arrasateko Udalak herriaren gaineko webgunea sortu du

Aurrerantzean, Interneten *arrasate-mondragon.org* helbidea idatziz gero, Arrasateko Udalak abiarazi berri duen webgunea zabalduko dugu. Eibarko Code&Syntax enpresak egin du webgunea. Eta, duen berritasunik nabarmenena da informazioa egunez egun berritzeko aukera ematen duela. Horrek esan gura du egun batetik bestera informazio berria aurkituko dugula; adibidez, herriaren gaineko albisteak, Udaleko Gobernu batzordearen erabakiak, osoko bilkuretan hartutako erabakiak…

**HERRIA, UDALA ETA HERRITARRAK**

Izan ere, edukiei begiratuz gero, denetarik aurkituko dugu webgunean: batetik, herriaren gaineko informazio orokorra; bestetik, Udalaren gaineko informazioa; eta, hirugarrenik, herritarren partaidetzarako lekua ere gorde dute (herritarrek kontsultak egiteko, kexak azaltzeko…).

**ELEBIDUNA**

Hori guztia bi hizkuntzatan egin ahal izango da: espainolez eta euskaraz. Eta webguneak eskaintzen dituen bilaketak ere bi hizkuntzatan egin ahal izango dira, bilaketa horiek euskarara egokitu dituzte-eta.

**BIGARREN PAUSOA**

Aurrera begira, berriz, webgune hori hobetzeko asmoa du Arrasateko Udalak. Hain justu ere, interaktiboa izatea lortu gura dute; hau da, herritarrek etxetik egin ahal izatea orain udaletxean egin behar izaten dituzten gauza gehienak. /UBANE MADERA

**Zertzelada**

**Egun batetik bestera informazioa berritzeko aukera ematen du; horrela, albisteak, Udaleko informazioa... egunero berrituko dituzte**

ARETXABALETA

# Zazpi milioi euroko udal aurrekontua onartu zuten astelehenean

Astelehenean eginiko osoko bilkuran, Aretxabaletako 2003ko udal aurrekontuak onartu zituzten.

Zazpi milioi eurotik gorako aurrekontua aurkeztu zuten, eta udalbatzarra osatzen duten Batasuneko eta EAJ/EA alderdiko zinegotzien botoekin onartu zuten. PPko zinegotziak ezezkoa eman zion, eta PSEkoa ez zen agertu. Udal aurrekontu horri, Urats-Gain zaharren egoitzari dagokiona eta Bihargintzari dagokiona gehitu behar zaizkio.

Aurrekontuetan ez dute proiektu ikusgarririk zehaztu; hori bai, kultura azpiegitura sendotzeko proiektuak bultzatuko dituzte. Ur hodien saneamendu lanetarako, bestalde, diru kantitate garrantzitsua utzi dute, eta, era berean, herria bera eta inguruak txukunduko dituzte. /MIRARI ALTUBE

**UDAL AURREKONTU OSOA 7.484.559 €**

**INBERTSIO AIPAGARRIENAK**

| | |
|---|---|
| Lursailak erosi | 750.105 € |
| Saneamenduak | 456.408 € |
| Industria pabilioia | 310.000 € |
| Copreci ingurua txukundu | 211.000 € |
| Lausittako plaza egokitu | 85.000 € |
| Proiektuak | 72.000 € |
| Galartza-Gellaoko bideak | 46.000 € |
| Larrino eliza ingurua | 42.100 € |
| Txintxaunak egokitu | 30.000 € |
| Beste batzuk | 223.594 € |

ESKORIATZA

## Garzón epailearen errekerimendua iritsi da udaletxera

Eguaztenean, hilaren 29an, Madrilgo Auzitegi Nazionaletik bidalitako Garzón epailearen errekerimendua iritsi zen udaletxera. Otsailaren 17a bitartean, dokumentazio ugari prestatu beharko dute Eskoriatzako Udaleko arduradunek; 1979tik gaur egunera arte, Herri Batasuna, Euskal Herritarrok eta Batasuna taldeek egindako interbentzioen, protesta ekintzen eta aurkeztutako mozio guztien aktak batu beharko dituzte, Madrilera bidaltzeko. Eskoriatzako Udalak oraindik ez du erabaki zelan jokatuko duen horren gainean. /A.G.

ARAMAIO

## Argindarra moztuko dute datorren eguenean eta barikuan

Transformazio zentroen mantentze lanak egin behar dituztela-eta, datorren eguenean eta barikuan, argindarra moztuko dute, bost minutuz. Eguenean, honako auzo hauetan moztuko dute: Gantzagan, Etxaguenen, Labeagan, Arexolan, Untzillan eta Suñan. Barikuan, berriz, honakoetan moztuko dute: Ibaben, Uribarrin, Gureian, Altzagan, Azkoagan, Barajuenen eta Arriolan.

Bestalde, egubakoitzean, Ibarran 09:00etatik 09:20ra moztuko dute argia, Nardeaga kaleko zenbait etxetan izan ezik. /U.M.

LEINTZ GATZAGA

## Erretiratuak, ohitura zaharra errekuperatzeko ahaleginean

Toki Eder erretiratuen elkarteko kide batzuei Santa Ageda egunean kantuan eta eskean baserriz baserri joateko ideia bururatu zaie. Aspaldiko ohitura zaharra errekuperatzea dute helburu. "Lehen, soldadutzara joaten ziren herriko mutilek ospatzen genuen Santa Ageda. Gero, eskoriatzarrekin batera hasi ziren Santa Ageda ospatzen, eta orain, hori ere ez!", esan digu elkarteko presidenteak. Baina batzuek baietz eta beste batzuek ezetz, badirudi bertan behera gelditukoa dela. /A.G.

Eider Ganboa EHUko irakaslea da Donostiako Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean. Pedagogian lizentziaduna da. Horrez gain, Interneten eta teknologia berrietan aditua ere bada. Horregatik dabil herriz herri hitzaldiak egiten Internet eta ordenagailua etxean edukitzeak dakarren arrisku eta abantailen gainean. Oraingo astean, Bergarako Ipintza Institutuan izan da.

ENEKO AZKARATE



ENEKO AZKARATE

# *Eider Ganboa*

HEZITZAILEA ETA TEKNOLOGIA BERRIETAN ADITUA

# “Ona da gurasoek jakitea seme-alabek zenbat ordu ematen dituzten ordenagailuaren aurrean”

ERABILERA OKERRA

**“Umeei Interneten nabigatzen uzten badiegu, inolako kontrol barik, azkenean, gurasoek nahi ez dituzten edukiak aurkituko dituzte, eta erabilera okerra emango diote Interneti”**

ORDENAGAILUA EGONGELAN

**“Ona izan daiteke ordenagailua familia osoak ikusteko moduko tokian jartzea; egongelan, esate baterako. Batez ere, umeak txikiak direnean”**

***Gurasoak, ordenagailuak eta Internet etxean* izenburuko hitzaldia egin duzu Bergaran oraingo astean. Gai horrekin gero eta kezkatuago daude bai hezitzaileak baita gurasoak ere?**

Uztailean, udako ikastaroa antolatu genuen Donostian gai horren gainean. Ikastaro horrek badirudi jakingarritasuna piztu duela, eta, azkenaldian, hainbat tokitan ari gara horren gaineko berbaldiak egiten. Eskoletan-eta jakin-mina piztu du gaiak. Etxeetan, gurasoen artean, ostera, orain hasi dira gaiaz kezkatzen. Orain arte, gazteek telebista larregi ikusteak dakarren arriskuaz, eta abarrez ikerketa ugari egin dira, baina Internet berri samarra denez, ez da ikerketa askorik egin horren gainean. Azken bi urteotan, garapen handiagoa izan du Interneten erabilerak; izan ere, ordura arte, batik bat, enpresetan, unibertsitatean-eta erabili izan da.

**Orain, berriz, Informazio Gizartearen plana dela-eta, KZGuneak direlaeta, etxeetan ere geroago eta gehiago erabiltzen da Internet.**

Bai, hala da. Azken bi urteotan, batbatean, izugarri sartu da Internet etxeetan. Eta zer gertatzen da? Bada, guraso askok ez dutela Internet ezagutzen, ez dutelako inoiz erabili beharrik izan. Eta, orduan, beldurra diote ezezaguna den Interneti. Gauza asko entzuten ditugu Interneten gainean, eta, jeneralean, txarrak izaten dira.

**Eta, zure iritziz, benetako arrazoiak badituzte gurasoek Internetekin kezkatuta egoteko?**

Nire iritziz, ez. Kontua da zelan erabiltzen den. Telebistarekin ere berdin gertatzen da: txarra da telebista ikustea? Ez. Txarra dena da larregi ikustea edo txarto erabiltzea. Gauza guztiek dituzte alde on eta txarrak. Jeneralean, gauza berrien aurrean, babesa aurkitzen ahalegintzen gara edo atzera egiten dugu. Baina horrek, ulergarria izan arren, ez dauka zentzu handirik.

**Gurasoen artean Interneten gainean ezjakintasun handia dagoelako izango da hori, ezta?**

Bai. Jeneralean, teknologia berriak ez dituzte menderatzen. Gainera, gurasoek sarritan ikusi eta entzuten dute hedabideetan Internetek mendekotasuna sortzen duela eta umeak bakartasunera bultzatzen dituela. Eta, horregatik, beldurtu egiten dira. Baina Internetek sortzen du bakartasun hori? Nik uste dut ezetz. Horren atzean beste arazo batzuk nabarmendu beharko genituzke. Ezjakintasunagatik kezkak sortzea ulergarria da, baina gurasoak lasaitu egin beharko lirateke. Uste dut gai horren gainean larregi berba egiten dela, eta, sarritan, askorik jakin barik. Apurka-apurka, baina, geroago eta informazio gehiago dago.

**Erabaki bat izan daiteke etxerako ordenagailurik ez erostea edo Internetera ez konektatzea. Zuzena edo egokia iruditzen zaizu erabaki hori?**

Ez. Familiako guztiek erabaki behar dute, nire iritziz, merezi duen, ona edo txarra den, ordenagailua erostea eta Internetera konektatzea. Edozelan ere, ona da gurasoek jakitea seme-alabek zenbat ordu ematen dituzten ordenagailuaren aurrean edo zenbat ordu Interneten nabigatzen, eta jakitea zelan erabiltzen duten ordenagailua eta Internet. Esaterako, zazpi edo zortzi urteko umeak gurasoekin batera eta haien laguntzarekin Interneten sartzea ona da. Bestalde, Interneteko esploratzaileek ematen dute aukera jakiteko zer ikusten ibili garen Interneten. Hortaz, horiek oso tresna erabilgarriak izan daitezke jakiteko umeek zertan diharduten. Interneti egozten diote erru guztia, baina telebista ere, esaterako, kaltegarria gerta daiteke.

**Familia elkartzeko modua ere izan daiteke Internet?**

Bai, izan liteke. Azken baten, modurik egokiena aurkitzea izango litzateke kontua. Lehengo familia eredua asko aldatu da gaur egun. Gurasoek, aitak eta amak, lan egiten dute eta umeek ordu asko dauzkate euren kontuetarako, eta lehen baino ordu gehiago ematen dituzte aita eta ama alboan ez dituztela. Orduan, umeei Interneten nabigatzen uzten badiegu, inolako kontrol barik, bada, jakina, azkenean aurkituko dituzte gurasoek nahi ez dituzten edukiak, eta, seguruen, erabilera okerra emango diote Interneti. Umeei zentzu kritikoa lantzen laguntzen badiegu, berriz, askoz erabilera egokiagoa emango diote Interneti.

**Hala ere, mendekotasuna sor dezake Internetek. Hori ukaezina da, ezta?**

Bai, kasu batzuetan gerta daiteke, beste mendekotasun batzuk sortzen diren moduan. Gainera, medio berria izaterakoan, berritasunak sortzen duen erakargarritasunagatik mendekotasunera bultza gaitzake. Baina, denbora pasatu ahala, ordu kopurua normalizatzen joaten dela uste dut, eta, azkenean, behar denean bakarrik erabiltzen da. Badira, edozelan ere, kasu batzuk, bakartiak edo isilak diren umeenak, Interneten aurkitzen dutenak euren benetako mozorroa-edo. Halako kasuetan, irakaslearengana edo psikologoarengana joatea ona izan daiteke, baina ez da ohikoena.

**Zein tokitan egon beharko litzateke ordenagailua etxean?**

Ona izan daiteke familia osoak ikusteko moduko tokian jartzea; egongelan, esaterako. Batez ere, umeak txikiak direnean. Baina nerabezaroan, normalagoa da neska-mutikoek euren logelan-edo edukitzea ordenagailua. Kontua ez da gaingainean egotea eta uneoro kontrolatuta edukitzea seme-alabak.

**Argi dago, esaten ari zarenaren arabera, gurasoek kontu horretan hezi beharra dutela, ezta?**

Bai, horixe da egokiena. Gu, Izfe elkartekook, horretan gabiltza, guraso eskolaketa sortzen. Aita-amek Internet ondo ezagutzen badute, errazago gertatuko zaie umeari gerturatzea eta Interneten dagoen informazioari erabilpen egokia ematen laguntzea… Azken baten, umeak ikasi behar du Interneten dagoen guztia ez dela egia eta badagoela informazio ona edo egokia eta hain ona ez dena. Sozializatzeko beste modu bat eskaintzen digu Internetek, eta, hortaz, familia egoera berrietara egokitu behar da.

**Ona da ordenagailuak erabiltzeko ordu muga jartzea?**

Niri ez zait gustatzen horrelako neurriak ipintzerik. Hala ere, umea zelakoa den jakin beharko genuke lehenbizi, eta, ordu gehiegi sartzen hasten bada, horrelako neurriak hartzea irtenbide egokia izan daiteke.

**Txateatzen ibiltzea, hau da, jendearekin harremanetan jartzea, berez, ona da; kaltegarria ere izan daiteke?**

Arriskutsua izan daiteke txateatzen ibiltzea, baina hori ere aukeratzen dugun txataren araberakoa edo hariaren beste aldean daukagunaren araberakoa da. Baina hizkuntzak ikasteko ere erabil daiteke. Jakina, Internet txateatzen ibiltzeko bakarrik erabiltzea ez da egokia, beste erabilera batzuk ere baditu-eta.

**Adin egokirik badago ordenagailua erabiltzen hasteko?**

Gaur egunean, oso umetatik hasten dira ordenagailuak diren jostailuekin. Guretako bolaluma den moduan, gaur egungo ume txikiendako ordenagailua izango da. Adin bakoitzera egokitutako edukiak badaude, hortaz, garrantzitsuena da eduki egokiak erabiltzea. Kontua da jasotzen dugun informazioarekin kritiko izatea, eta hori irakatsi behar zaio umeari, bai gurasoek baita irakasleek ere.

# Zabalik



ANDONI URZELAI

## Eraztunen gizona...

**Ehunka soldadu zaildu atzean dituela, airean ezpata, uluka, trotean, badator zaldun beltza...**

***Un anillo para gobernarlos a todos...***

**Jesusen ama! Hemen da Mordor.**

**Ez dator bakarrik, erreinu beltzetako jauntxo gaiztoek babesten dute: Ton Blairtak eta Joxmar Aznarkok.**

**Amorruz abaiarazi du gudaroste krudela menderatu gabeko lurralde urrunetara. Zirt eta Zart. Ez dago Mordorri aurre egiteko kemenik duen inor inon.**

**Non zaude Bilbo? Eta zu Gandalf? Aragor? Non Hobitak, non Elfoak?**

**Ilunpeko lurraldeetatik datozen mezulariek berri txarrak dakarte. Antenium 3.enak, Telium 5.enak eta Tvium 1.ak zera diote beren ohiko faltsukeria mozorrotu gabeaz: Mordorrek arrazoi osoa duela eta berak gidatzen duen gaizkiaren kontrako kruzadari babes osoa eman behar geniokeela. Cenium eNNek, Mordorren mezularirik leialenak, ahalguztidunaren kontra joatea suizidioa dela dio. Bere babesaz baino ez garela garena izango.**

**Eta horrela dela pentsatuta, gauzak kontatzen dizkiguten bezala direla konbentzituta, lurralde garatu eta garaituetako herritarrok lasai hartu dugu loa. Ezpata urrunen herio hots are urrunagoen oihartzunetatik salbu, mezularien berba beti ere xamurren magalean, ipuinetan bezala, filmetan bezala.**

**Ah, portzierto, lorik hartu ezinean ari zaretenondako gomendio aproposa: *El señor de los anillos* gaur plusen, hamarretan.**

# Gutunak

Ahalik eta iritzi gehienek izan dezaten tokia, ez da komeni makinazko 15 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Izena, telefonoa eta helbidea agertu behar-ko dira. Laburtu behar izanez gero, GOIENKARIAk bere esku du horretarako eskubidea.

Zure iritzia helarazteko:
Barrenkalea 33, 20570 BERGARA
Telefonoa: 943 76 92 72
Faxa: 943 76 29 77
Posta-e: goienkaria@goiena.com




## SOS Barandalla!

Ospitalerako joan etorri amaigabeak, polizien jazarpena, neskalagunarekin eta alabarekin egoteko eragozpenak, gaizki egindako ebakuntzak, beste ebakuntza batzuk, kontraindikatutako tratamenduak, asistentzia sanitario eza… Edozer egiteko gauza dira frantziar eta espainiar estatuak, gaixotasun larri eta sendaezinak dituzten gure senitartekoak ez askatzeko, eta gure eta preso dituzten gure senitartekoen samina areagotzeko. Horregatik, euskal preso politikoren bat gaixotzen bada, gaixotzen uzten badute, bitarteko guztiak erabiltzen dituzte ahalik eta min gehien egiteko. Sekula ez dugu ahaztuko Esteban Nietorekin, Pello Mariñelarenarekin…, egin zutena eta ez gara prest berriro antzeko zerbait bizitzeko.

Bi estatuek gure eta preso dituzten gure senitartekoen aurka darabilten bortxakeriaren erakusle garbi bat Bautista Barandalla da. Eskubide guztiak zapaldu egiten dituzte, osasun eskubidea barne, ondorio oso larriak eraginez: Barandallaren osasun egoera oso larria da.

Ezin dira gutxietsi Barandalla askatzeko eskatzen duten pertsona anonimoen eta ezagunen sinadurak, orain arte egin diren ekimenak…, eta askoren eguneroko konpromisoa.Kontuan hartzekoa da, era berean, instituzioen eta arduradun politikoen isiltasuna, eta egoera larri honen aurrean erakutsi duten arduragabekeria.

Zer gehiago jasan behar du Barandallak eta bere familiak? Zergatik luzatzen du Iruñako Espetxe Zaintza Epaitegiak egoera giza gabe hau? Nor da Barandallari gerta dakiokeenaren erantzule?

Datozen egunotan Barandallak beste ebakuntza gogor bati egin beharko dio aurre. Haatik, egoera jasangaitz hau salatzeko, hainbat ekimen antolatuko ditugu asteburuan Arrasaten.

ARRASATEKO ETXERAT
Arrasate

## 92. artikulua orain

Bautista Barandalla euskal preso politikoari 2000. urtean ultzera peptikoa diagnostikatu zioten Zaragozako kartzelan zegoela. 2002ko martxoan, bere gaixotasuna modu nabarmenean larritu zen, berehalako kolitis ultzeroso bilakatuz. Harrez geroztik, kartzelatik ospitalera bidaiak etengabeak dira.

Ustez, Barandallak heste lodi osoa moztua zuen, baina iazko abenduaren 5ean egin zizkioten mediku probek erakutsi zuten oraindik 14 zentimetroko heste lodia duela. Gainera, 17 zentimetro horietatik, 8 zentimetro gaizkituak dituela-eta horiek mozteko aurki ebakuntza egingo diote. Ebakuntza honetatik onik ateratzeko espetxean ezin zaio behar duen tratamendua eman.

Gauzak horrela, Bautista Barandallaren osasun egoera benetan larria da, larria ez ezik, hilzorian dago. Barandalla kartzelan mantentzen duten egun bakoitzeko, gaixotasuna sendatzeko egun bat gutxiago du. Itzulezina bihurtzen ari da egoera, baldin eta Barandalla askatu arte. Erlojuaren kontran, egunak, orduak nahiz minutuak erabakigarriak dira. Herriaren baitan dago, Barandallari elkartasuna adierazteaz gain, egoera jasangaitz honen erantzuleei, Bautista askatu bitartean, jokabide giza gabeak salatzea. Modu honetan, eta Barandallaren bizia arriskuan dagoela ikusirik, Aretxabaletan egingo diren mobilizazioetan partehartzea eskatzen dizuegu.

ARETXABALETAKO ETXERAT
Aretxabaleta

## Marea beltza

Aspaldian iritsi zen gurera marea beltza, daukagun eredu ekonomikoak uzten digun zaborra, hain zuzen. Errekak eta itsasoak pozoiturik dauzkagu eta mendi eta basoak porlanaz beteak. Itoizko urtegia betetzen hasiak dira, Zornotzan zentral termikoa nekez botako dute atzera eta Lastertasun Handiko Trenaren zundaketa lanak hasiak ditugu gure ibarrean. San Prudentziotik aurrera autopistak utziko digun ingurua beldurgarria bada, zer izango da LHT sartzen digutenean? Herri jasangarriari buruz ari direnean honetaz ari ote dira?

Euskal Autonomia Erkidegoko gobernuak men egiten dio USAren eredu ekonomiko suntsitzaileari. Beraz, beraiek dira sortzen diren ondorio latz eta atzeraezinen erantzule zuzenak.

Imaz ekologistak, ama lurraren suntsipenarekin jarraitzen du, multinazionalen eta interes espekulatzaileen mesedetan. Non geratzen dira inguru naturalarekiko errespetu eta ustiapen arrazionala? Gizartearen gehiengoa ere honen alde al dago? Eta zer mesede ekartzen digute milaka milioiko azpiegitura hauek herritar xumeoi?

Eskerrik beroenak eredu ekonomiko honek uzten digun txapapotea garbitzen dihardzuen guztioi.

ARRASATEKO LAB SINDIKATUA
Arrasate

## Eskerrik asko

Errege bezperan Arrasateko kaleetan zehar ibili zen Errege Kabalgatako antolatzaileok jasotako laguntza guztiak eskertu nahi genituzke. Lehenik eta behin elkarte hauek eskertu nahi genituzke: Arrasateko udala, San Viator ikastetxea, SUDC, Gurutze gorria, Eroski, Kajoi, Ederra, Itzala, Eskina, Udalaitz, Txoko, Banco de Vitoria, Euskadiko Kutxa, Muruamendiaratz gozotegia (San Andres), Rumba, Bengoa, La Caixa, Banco de Santander, Banco Guipuzcoano, Super BM, Onaindia...

Bestalde, kabalgatan edozein eratara lagundu zenuten guztioi (antortxero, tanborrero, kantari, Belengo pertsonaiak… eta Gorosabel familia) bihotzez mila esker.

Azkenik, bai Iturbide egoitzan, bai kaleetan zehar egindako ibilbidean, bai Herriko Plazan eta Debagoieneko Eskualdeko Ospitalean egondako guztioi ere gure eskerronik beroena.

ARRASATEKO ERREGE KABALGATA ANTOLATZEN DUEN BATZORDEA
Arrasate

# Olatz eta Patxi

MIKEL ARROIABE



# Gaia jarrita

*Prestige*-ren hondamendiak, *Mar Egeo, Haven, Exxon Valdez, Castillo de Belver, Amoco Cadiz, Torrey Canion,* eta abarrekin gertatu zen moduan, petroliontzien gaineko segurtasun-arauak jarri ditu berriro mahai gainean. Honelako gaiak planteatu dira: krosko bikoitza orokortzea, armadoreen eta itsas zirkulazioa kontrolatzen duten agintarien erantzukizuna eta sektore horretako langileen prestakuntza, besteak beste. Baina eredu energetikoa bera ez dago krisian? Askok baietz uste dute.

ENERGIA EREDUAK

## Gaur egun, petrolioa da kontinente barruko urak, itsasoa, lurzorua eta atmosfera kutsatzearen arrazoi nagusia

Petrolioa eta berau atera, garraiatu eta prozesatzea dira kontinente barruko urak, itsasoa, lurzorua eta atmosfera kutsatzearen arrazoi nagusiak. Gainera, petrolioaren eta bere eratorrien konbustioa $CO_2$ emisioen iturri handienetakoa da, eta bera da hain zuzen berotegi-efekturako gas nagusia, biosfera guztia arriskupean jartzen duen klima-aldaketaren erantzulea. Beharrezkoa da, beraz, politika energetikoa aldatzea, petrolioarekiko mendetasuna gutxitzeko eta eraginkortasuna zein aurrezpen energetikoa sustatzeko, energia berriztagarriak bultzatuz.

Petrolioaren ingurumenerako kalteak, Galiziako kostan *Prestige*-ren (edo beste petroliontzi baten) marea beltzak eragiten duen ingurumen, gizarte eta ekonomia-hondamendia baino areago doaz. Erregai horren erabilera mundu osoko atmosferarako $CO_2$ emisio gehienen eragilea da. 2001 urtean, petrolioak jatorri fosileko $CO_2$ emisioen %44 eragin zituen, ikatzak baino nabarmen gehiago, %35ekoak ziren-eta. Ikatza erregai kutsatzaileena dela uste da, masa-unitate bakoitzeko karbono-dioxidoaren emisio gehiago sortzen duelako eta sufrea eta beste metal astun batzuk (merkurioa, esaterako) ugari dituelako. Dena dela, petrolioa da gure garaiko ingurumen-arazo handienaren sortzaile nagusia: klima-aldaketarena. 1750etik, $CO_2$aren



MIKEL OLABE
Ekologistak Martxan taldeko kidea

> *“2001ean, petrolioak jatorri fosileko $CO_2$ emisioen %44 eragin zituen, ikatzak baino askoz gehiago”*

> *“Petrolioa ezin da XXI. mendeko energia izan, aurrezpena eta eraginkortasuna baizik, horiek eta energia berriztagarriak baitira energiaren benetako iturriak”*

atmosferako kontzentrazioa %30 igo da, eta hartara, beroari eusteko prozesu naturala, berotegi-efektu ere deitutakoa, areagotu egin da mundu osoko klimaren aldaketa eragiteraino.

Prozesu horretan petrolioak betetzen duen rolaren arrazoia, batez ere XX. mendeko bigarren erdian, munduko lehenengo energia-iturri izatera iristea da, iaz energia primarioaren %38,5, ikatza baino 14 puntu gehiago, British Petroleum-en 2002ko urtekariko estatistiken arabera. Herrialde gutxik egiten diote alde arau horri; salbuespen nabarmenenak Txina, India eta Hego Afrika dira. Nagusitasun horren zergatiaren zati bat garraiorako duen erabilera da, etengabe hazten den jarduera baita, merkatu libreak eskatzen duen merkantzien garraioak bultzatuta.

Munduko petrolioaren laurdena AEBendako da, eta bigarren kontsumitzaile handia Europako Batasuna da (%18); OCDEko gainontzeko herrialdeek ere beste horrenbeste kontsumitzen dute. Petrolioak batez ere Ekialde Hurbilean du jatorria, baina baita Errusian eta Hego Amerikan ere. Herrialde ekoizleen eta kontsumitzaileen arteko bereizketa garbia nazioarteko tentsioen iturri da, eta petrolioa prezio merkean erosi ahal izatea munduko politikaren motore nagusietako bat bihurtzen du, baita sarritan gerretarako arrazoi ere, adibidez AEBek Iraken kontra prestatzen ari direna. Ez dugu ahaztu behar ezagututako erreserba guztien %11 Iraken daudela, 2001ean 143.000 milioi tonakoa izanik.

Denbora luzean petrolioa agortzea gaur egungo gizartearen etorkizunarendako arazo larritzat jo da, baina dagoeneko aitortu behar da klima aldaketaren gaiak kezka hori azkeneko tokian utzi duela, mendearen lehenengo erdian ezin dugulako erre horrenbeste petrolio ez badugu nahi klimaren aldaketengatik hondamendizko efektuak gertatzea. Zientzialariek ohartarazi dutenez, 2050erako CO emisioak 1990ean botatzen zenaren %50-70 gutxitu behar dira, eta horretarako, erregai fosilen erabileran murrizketa larriak burutu behar dira.

Ekologistak Martxanendako gaur egungo joera energetikoek lehengo mendetasun berdinak mantentzen dituzte eta horrenbestez, baita petrolio produktuena ere, horrek dakartzan garraio eta emisio arazoekin. Egoera hori zenbat eta beranduago zuzendu, orduan eta handiagoa izango da kostu ekonomikoa eta ingurumenerako hondamenen aukerak. Petrolioa ezin da jada XXI. mendeko energia izan, aurrezpena eta eraginkortasuna baizik, horiek eta energia berriztagarriak baitira energiaren benetako iturriak, oso gutxi ustiatutakoak.

**ETA ZUK ZER IRITZI DUZU GAIAREN GAINEAN?** Iritzia emateko: goienkaria@goiena.com

# Gora eta Behera

### DEBA ERREKA GARBITZEKO DEPURADORAK

Aspaldiko kontua bada ere, azkenean badirudi hasi direla Deba erreka –Gipuzkoako zikinena– garbitzeko depuradorak eta kolektoreak jartzen. Oraindik urte batzuk pasa beharko dira, hala ere, guztiz ur garbiz ikusteko, baina, tira...

### BERGARAKO SAN ANTONIOKO BABES OFIZIALEKO ETXEAK

Martxoan amaitu zituzten San Antonioko babes ofizialeko etxeak, baina oraindik ez digute eman eta ez dakigu noiz emango diguten, Etxebiden ez digutelako informaziorik ematen. Bitartean, Madrazo egunero hedabideetan... Zorionekoak ginen etxea egokitu zitzaigulako...



LIBE TXINTXURRETA
Bergarako KZGuneko tutorea

# Koplak

### *Reala!*

Lehenengo buelta bukatu
ta Reala liderra;
liga horrela amaitu ezkero,
horixe gauza ederra.

Oraindik ez da inor gailendu
eta erdia pasa da,
Europara joango gara
hauxe bai dela pasada.

Gauza batzuk ez dira onak
ez da egiteko farra,
Frantziatik entrenadorea
hona ekarri beharra.

Real zalea betidanik naiz
baina nahi dut utzi garbi,
harrobiko gazte gutxi dago
ta extrtanjero gehiegi.

Nahiz ta orain artekoa izan
oso ona balantzea,
ez litzaidake ez gustatuko
igandez Bilbon galtzea.

Nahiz batzuetan sufritzen dugun
joan den urtean bezala,
momentu on ta txarretan beti
oihu: gora Reala!

IGOR ORUESAGASTI

Goienkaria
DEBAGOIENEKO ASTEKARIA

ZUZENDARIA Eneko Azkarate
ERREDAKZIO KONTSEILUA Edorta Mendieta, Miguel Angel Elkoroberezibar, Josemari Velez de Mendizabal
ADMINISTRAZIOA Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa
SAILETAKO ARDURADUNAK Goio Arana (Diseinua) Gotzon Arzelus (Publizitatea)
PUBLIZITATEA Arantzazu Lagunilla, Mireia Larrañaga, Natali Martínez, Izaskun Bolinaga, Ziortza Martín, Imanol Elortza
PRODUKZIOA Iban Arantzabal
TESTUEN ZUZENKETA Sergio Azkarate
HARPIDETZA ETA BANAKETA Julen Aranguren

Goiena Komunikazio Zerbitzuak
LEHENDAKARIA Estepan Plazaola
ZUZENDARI NAGUSIA Iñazio Arregi

GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen orri hauetan adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

# Debagoieneko harrobia, derbiari begira

## Realeko eta Athleticeko harrobietan diharduten debagoiendarrek Realak irabaziko duela uste dute

OXEL EROSTARBE

**I*zarren Liga*-ko bigarren itzulia asteburuan hasiko da. Derbia jokatuko dute Athleticek eta Realak, San Mamesen. Helburu berarekin irtengo dira bi taldeak zelaira: irabaztea. Realeko eta Athleticeko harrobian diharduten debagoiendarrek derbia zelan ikusten duten kontatu digute.**

Ez da erraza esatea Debagoienean zeinek dituen zale gehien, Realak edo Athleticek. Oraingo domekan, derbia jokatuko da San Mamesen. Partidu berezia izango den dudarik ez dago. Bi taldeendako, derbian jokoan dauden hiru puntuak oso garrantzitsuak dira. Izan ere, Athelticek *infernura* daramaten postuetatik urruntzeko beharrezkoak ditu hiru puntuak. Eta Realak, berriz, *Izarren Liga*-ko gorengo postuan luzaro jarraitzeko.

**BI TALDEEK HARROBIA DUTE GUREAN**

Bederatzi dira Realeko edo Athleticeko harrobietan diharduten debagoiendarrak: Andoni Andrés, Asier Sánchez, Josu Etxeberria, Iker Orueta eta Mikel Gonzálezek Realean dihardute, eta Gorka Eraña, Julen Eraña, Aitor Arregi eta Iker Uribarrenek, Athleticen. Aitor Arregi bergararra eta Iker Orueta aretxabaletarra salbu, gainerakoak arrasatearrak dira.

**HARROBIKOEN ARTEKO DERBIAK**

Talde nagusiaren derbian bakarrik ez, harrobiko taldeek jokatzen dutenean ere bereziak izaten dira Realaren eta Atlheticen arteko partiduak. Debagoieneko jokalariek esan digutenez, Lezaman jokatzen den derbira jende gehiago joaten da partidua ikustera. Eta horrek, jakina, eragina dauka han sortzen den giroan. Bi taldeetako jokalariek elkar ezagutzen dute, eta horrek partiduaren garrantzia handitzen du.



**ARRASATE TXURIURDIN, REALEKO PEÑA BERRIA.** Astelehenean aurkeztu zuten, Arrasaten, Realak ibarrean izango duen laugarren jarraitzaile taldea: Arrasate Txuriurdin. Agustin Arantzabal, Aitor Lopez Rekarte, Jabier de Pedro eta Jose Luis Astiazaran izan ziren aurkezpenean.

## Debagoieneko mutikoak Realean eta Athleticen

**Zubietara edo Lezamara doazen bideak ederto ezagutzen dituzte ondoan ikusten ditugun mutilek. Izan ere, ia asteko egun guztietan, Euskal Herriko futbol harrobi garrantzitsuenetara doazen bideak hartzen dituzte. Derbia parekatuta ikusten dute, eurek jokatzen duten mailan ere Athleticen eta Realaren arteko partiduak halakoak izaten direlako. Denek, ordea, Realak irabaztea gura dute. Emaitza aurreratu digute.**



**JULEN ERAÑA**
ARRASATE
11 URTE / LEHEN URTEA ATHLETICEN

Athleticen lehen urtea du Julen Erañak. Alebinen taldean jokatzen du eta dagoeneko 20 gol egin ditu oraingo denboraldian. Osasunaren eta Alavesen aurka jokatu du dagoeneko, eta Realaren aurka noiz jokatu zain dago.

**DERBIKO EMAITZA: 1-2**



**GORKA ERAÑA**
ARRASATE
12 URTE / BI URTE ATHLETICEN

Gorka Erañak ere Athleticen alebinen taldean jokatzen du. Gustura dabil, astean hiru egunean Lezamara joan behar duen arren. Domekako derbian Nihatek eta Kovacevicek gola egingo dutela uste du.

**DERBIKO EMAITZA: 1-2**



**MIKEL URIBARREN**
ARRASATE
12 URTE / BI URTE ATHLETICEN

Bi urte daramatza Mikel Iribarrenek Atlheticekin golak sartzen. Aurrelaria da, eta iaz Realaren aurkako derbia irabazi zutenekoa ez du ahaztu. Domekako derbia Realak irabaziko duela uste du.

**DERBIKO EMAITZA: 1-2**



**AITOR ARREGI**
BERGARA
12 URTE / LEHEN URTEA ATHLETICEN

Aurtengoa lehenengo denboraldia du Aitor Arregik Athleticen. Defentsan edo zelai erdian jokatzen du. Gogoan du aurten Realaren aurka 2-1 galdu zutela. Domekan Xabi Alonsok gola sartzea gurako luke.

**DERBIKO EMAITZA: 1-3**



**ANDONI ANDRÉS**
ARRASATE
16 URTE / SEI URTE REALEAN

Kadete mailako taldean jokatzen du Andoni Andrések. Derbi ugari jokatu dituen arren, ez dio sekula Athletici irabazi. Jose Luis Agirre da taldeko entrenatzailea, eta gustura dabil harekin. Derbia Realak irabaziko duela dio.

**DERBIKO EMAITZA: 0-2**



**ASIER SÁNCHEZ**
ARRASATE
16 URTE / SEI URTE REALEAN

Gazte mailako taldean jokatzen du Asier Sánchezek. Aurrelaria da, eta Athleticen aurka jokatutako derbietan hainbat gol egin ditu. Domekan ere Realeko talde nagusiak golak egingo dituela uste du. Gutxienez, hiru gol egingo ei ditu Realak.

**DERBIKO EMAITZA: 1-3**



**JOSU ETXEBERRIA**
ARRASATE
17 URTE / SEI URTE REALEAN

Orain dela bi aste, Athleticen aurka jokatu zuten, gazteen mailan. Josuk gola sartu zuen arren, 3-1 galdu zuten. Astean lau bider entrenatzen dira, Zubietan. Josu Etxeberria arrasatearrak zelai erdian jokatzen du. Realak irabaztea gura du.

**DERBIKO EMAITZA: 1-3**



**IKER ORUETA**
ARETXABALETA
17 URTE / SEI URTE REALEAN

Derbi ugari jokatutakoa da aretxabaletarra. Harrobiko taldeen arteko derbietan, Lezaman, batez ere, jende ugari eta giro paregabea egoten dela esan digu.

Domekako derbia Realak irabaziko duela uste du. Karpin izango ei da golegilea.

**DERBIKO EMAITZA: 1-2**



**MIKEL GONZÁLEZ**
ARRASATE
17 URTE / ZAZPI URTE REALEAN

Harrobian urte gehien diharduen debagoiendarra da Mikel González. Jokatutako derbiak gogoan ditu, egoten den giroa paregabea izaten da-eta. Domekako derbia Realak irabaziko duela uste du Arrasateko jokalariak.

**DERBIKO EMAITZA: 1-2**




MERKETTON • %70ERAINO • Maalako errabala 13 ARRASATE 943 79 92 76

# Athletic-Reala

Asteburuan, bi euskal talderen arteko derbia jokatuko da. Ibarrean Realzaleak dira nagusi, baina Athleticeko jarraitzaile asko ere badago. Bi taldeen egoera oso ezberdina da: Athletic puntu beharrean dago; Realak, berriz, goiko postuei eutsi nahi badie, ezingo du punturik galdu. Derbian, baina, gutxi izango dira sailkapenari begira, hiru puntu baino askoz gehiago izango da-eta jokoan.

Ibarreko hainbat laguni partiduan ze emaitza izango den emateko eskatu diegu. Denetariko erantzunak izan ditugu. Ikusi bestela.




**Otamendi taberna**
Oñati
Athletic irabazle, lehen, orain eta beti.




**Arkupe taberna**
Bergara
Aupa, biak!




**Los cazadores taberna**
Bergara
Animo, Athletic!




**Larrea taberna**
Antzuola
Aupa, Reala, gora, Alaves eta Osasuna, baina onena, Athletic.




**Aitz-garbi taberna**
Antzuola
Aupa, Reala!




**Altzarte gozotegia**
Antzuola
...eta aurten txapeldun!




**Arin jatetxea**
Antzuola
Txuri-urdinak aurrera!




**Martin okindegia**
Antzuola
Aurrera, mutilak!




**Ariznoa taberna**
Bergara
Liga geurea da!




**Toki-ona bodegoia**
Bergara
Lehoiak beti aurrera!

12. ORRIALDEAN GEHIAGO

Goienka2a

Egubakoitza / 2003ko urtarrilaren 31

Kultura eta aisialdia

Urtarrilaren 31tik otsailaren 7ra

# GOIENAREN GIDAK, IBARREAN GALDUTA EZ IBILTZEKO

Aurrerantzean, debagoiendarrok ez dugu inongo telefono aurkitegi lodira jo beharrik izango gure herriko edozein denda, zerbitzu edo etxe partikularren telefonoa jakiteko. Horrez gain, gure herrian dagoen igeltsero, arropa denda, jatetxe, errehabilitazio etxe… baten izena ez badakigu ere, erraz aurkitu ahal izango dugu haren telefono eta helbidea. Hori eta askoz aukera gehiago eskaintzen dizkigute Goiena Komunikazio Zerbitzuak kooperatibak gertatu berri dituen gidek.

**DATORREN ASTEAN, BERGARAKOA**

Goienak urteak zeramatzan ibarreko herri gehienetako gidak egiten, eta aurten, lehenengo aldiz, Oñatikoa ere egin du. Hori orain dela bi aste banatu zuten herriko etxe guztietan, doan. Bestalde, Bergarako, Antzuolako eta Elgetako argibideak batzen dituen gida datorren astean banatuko dute. Eta laster izango da gertu Arrasateko, Aretxabaletako, Eskoriatzako, Leintz Gatzagako eta Aramaioko liburuxka.

Herri bakoitzeko telefono zenbaki guzti-guztiak batzen ditu gida bakoitzak. Ez bakarrik dendetakoak eta enpresetakoak, baita hainbat zerbitzu eta erakunde publikorenak ere, eta herriko telefono partikular eta helbideak. Horiek guztiak formatu arin, eroso eta erakargarrian eskaintzen ditu Goienaren gidak.

**GIDEN ARTEAN, LIDERRA**

Azken urteotan, gero eta enpresa edo erakunde gehiagok egin dute estilo horretako giden aldeko apustua. Debagoienean asko eskuratu ahal izan ditugu. Batzuk herri bakarrerako ziren; beste batzuk, aldiz, ibar osorako, Gipuzkoarako edo Euskal Herri osorako eginda zeuden. Hala ere, urterik urte, debagoiendarrek Goienaren gida aukeratu dute besteen gainetik. “Banaketa bukatu ondoren ere jende asko etortzen da ale gehiago eskatzera”, diote gida prestatzen ibili diren Goienako komertzial taldekoek.

Arrakasta horren sekretua da formatu arin eta erakargarria, alde batetik, erabiltzeko erosoa eta erraza egiten dena: informazioa liburuxka mehe baten dator, ez orri askotako liburu lodi baten; bestalde, jarduera arloka –sail bakoitzak, bilaketa errazteko, azpisailak ere baditu– eta alfabetikoki daude sailkatuta denda eta zerbitzuak; gainera, estetikoki oso deigarria da. Aurten, lehen aldiz, gidak koloreetan egin ditu Goienak.

Beste berritasun batzuk ere izan dira aurtengo gidetan: esate baterako, Arrasateko gidak partikular guztien telefonoak eskainiko ditu lehenengo aldiz; Bergaran eta Oñatin (Laixan elkarteak egiten zuen lehen Oñatiko gida) lehendik zegoen aukera hori.

**LASTER, INTERNETEN**

Gidetan datorren informazio guztia Interneten ere izango da eskuragarri laster. Goiena ibarreko atari informatikoa prestatzen dabil, *Goienanet*, eta han azalduko da informazioa. /LEIRE KORTABARRIA




GOIO ARANA

ZERBITZUAK/ **DEBAGOIENEKO HERRI GUZTIETAKO GIDAK EGIN BERRI DITU GOIENAK**

# Ibarreko telefono aurkitegi osoa

DENDEN ETA PARTIKULARREN 4.600 TELEFONO BATZEN DITUZTE IBARREKO HIRU GIDEK, ETA EGUNOTAN ARI DIRA BANATZEN, DOAN

LEIRE KORTABARRIA

**Debagoiendar bakoitzak nork bere herriko telefono aurkitegirik osoena eta erabilgarriena du eskura; izan ere, Goiena Komunikazio Zerbitzuak kooperatibak urtero egiten dituen gidak gertu daude. Debagoiendar gehienek aukeratzen duten gida da Goienak egiten duena.**

Inoiz baino apustu indartsuagoa egin du Goiena kooperatibak bere giden alde. Hainbat urtetako eskarmentua praktikara eraman du, orain arte prestatu dituen gidarik osoenak, estetikoki erakargarrienak eta erabiltzeko erosoenak argira emateko. Aurten, Debagoieneko herri guztiek dute euren gida; izan ere, Oñatiko liburuxka ere Goienak prestatu du.

Oñatiko gida banatu dute dagoeneko; 4.500 ale banatu zituzten, doan. Bergaran aste honetan banatuko dute gida: 6.000 ale (liburu bakarrean Antzuolako eta Elgetako gidak ere egongo dira). Arrasate, Aretxabaleta, Eskoriatza, Leintz Gatzaga eta Aramaiorako 12.000 gidak otsailean banatuko dituzte.

#### 4.600 DENDA ETA ZERBITZU

Azken urteotan, estilo askotako gidak jaso ahal izan ditugu. Hala ere, Arrasate eta Bergarako Goienak egindako gidak izan dira, orain arte, herritarrek hobetsi dituztenak. Ez herritarrek bakarrik: merkatariek ere, urtetik urtera, Goienaren Gidetan ipini dute euren konfiantza.

Gidan ez dira bakarrik denden telefono eta helbideak agertzen; baita erakunde publiko, elkarte, alderdi politiko, sindikatu, kultura eragile, zerbitzu… guztien telefono eta helbideak ere. Kasu askotan, gainera, denda edo zerbitzu horien publizitatea ere agertzen da, informazio gehiagorekin. "Oro har, hiru giden artean, 4.600 denda, erakunde eta zerbitzuren datuak batzen dira", azaltzen du Gotzon Arzelusek, giden zuzendarietako batek.

Telefono horiez guztiez gain, lehenengo aldiz baita ere, Debagoieneko telefono partikular guztiak ere eskaintzen dituzte Gidek. Horrela, bada, debagoiendarrok ez dugu bestelako aurkibiderik behar izango ibarreko edozein telefono aurkitu ahal izateko.

#### EROSOTASUN OSOZ

Beste gida batzuk ez bezala, Goienaren gidak liburuxka arinak dira, telefono alboan edukitzeko eta erabiltzeko oso erosoak. Erabilerraz egiten duten beste ezaugarri batzuk ere baditu gidak: "Bilaketa hainbat modutara egin daiteke. Alde batetik, dendak eta zerbitzuak alfabetikoki batuta daude; eta, bestetik, jardueren arabera ere klasifikatuta datoz", azaltzen du Arantzazu Lagunillak, giden beste zuzendarietako batek.

Horrela, denda baten izena ez jakin arren, azkar asko aurki dezakegu gidan.




LEIRE KORTABARRIA

**Gero eta gida gehiago daude merkatuan, baina Debagoieneko datu gehien eta zehatzenak dakarrena, Goienarena da.**

#### HIZKUNTZA NORMALIZAZIOA

Baina gida horiek badute beste abantaila bat: euskara hutsean datoz. "Euskararen normalizaziorako beste tresna bat dira gidok", dio Goienak.

Hori bai, euskaraz ez dakiten erabiltzaileek ere ez dute oztoporik izango. Horiekin pentsatuta, Goienak hiztegi praktiko bat erantsi du gida bakoitzaren bukaeran, erabilitako berba guztien itzulpenarekin.

#### INFORMAZIO PRAKTIKOA

Giden zerbitzu bokazioa biribiltzeko, liburuxkotan herri bakoitzari dagokion informazio praktikoa aurkitu ahal izango dugu. Besteak beste, jaiegunak, Oñatiko herriko planoa, egutegia…

Doako banaketa bukatzean, oraindik eskuragarri izango dira Oñatiko Laixan elkartean (San Juan kalea 2), Bergarako *Berrigara*-n (Irizar jauregia) eta Arrasateko Goienan (Saiolan).

## Goienarena, hedatuena

**Aurten, inoiz baino gida beteago eta erabilgarriagoak prestatu ditu Goiena kooperatibak.**

**Lehenik eta behin, Debagoieneko herri guztiendako gidak egin ditu Goienak. Oñatiko gida lehen aldiz egin du, eta Bergarako eta Arrasateko gidak egiteak eman dion eskarmentua modu onean aplikatu du horretarako. Oñatiko gida banatu dute dagoeneko herriko etxe eta denda guztietan, doan.**

**Bestalde, hainbat berritasun garrantzitsu izan dira aurtengo gidetan: batetik, gida guztiak koloreetan egin dituzte, lehenengo aldiz. Arrasateko gidari dagokionez, gainera, erabiltzaileak laster konturatuko dira herriko telefono partikular guztiak ere agertzen direla, lehenengoz. Horrela, bada, gida bakoitza herriko telefono aurkitegi zehatza da, erabiltzeko oso erraza eta erosoa: euskaraz ez dakiten erabiltzaileendako hiztegia dakarte gidek. Horrez gain, bilaketak alfabetikoki edo jardueraka egiteko aukera dago. Horrek guztiak debagoiendarron gida gogokoena bihurtu du Goienaren gida.**




**'BERGARA 2003'**

Debagoieneko gainerako giden artean, herri bakar bat hartzen duen bakarra da. Aurreko urteotan ere argitaratu izan dute. Bergarako denda eta erakunde publikoen telefonoak batzen ditu. Herriaren gaineko artikuluak ere badakartza.




**'EUSKALDUNON GIDA'**

Bilboko Artez Euskara Zerbitzuak egindako liburua da. Euskal Herri osoko 400 udalerritako denda eta profesionalen telefono eta, batzuetan, helbide elektronikoak batzen ditu. Gidaren berezitasuna Euskal Herriko posta kodeen gida da.




**'GIDA KOMERTZIALA'**

*Euskaldunon Egunkaria*-k egindako gida komertziala egunkariarekin batera banatzen dute. Iaz, 80.000 ale atera zituzten, eta aurtengoa maiatza bukaera aldean aterako dute. Webgune aurkitegia, errepideen mapak, eta abar ere badakartza.




**'QDQ'**

Gipuzkoako telefono komertzialak, jarduera arloaren arabera bilduta, dakartza gida elebidun honek. Horrez gain, bestelako informazioa ere badakar: museoak, zerbitzuak… Donostiako planoa, garraio publikoen gaineko datuak… ere baditu.




**'GUÍA PRÁCTICA'**

Debagoieneko bost herritako merkataritza gida dugu hau. Elebiduna den arren, gaztelania da hizkuntza nagusia, eta aurkitegi alfabetikoa gaztelania hutsean dago. Herri horietako plano bana ere eskaintzen du, baita EAEko telefono publiko batzuk ere.




**'EL CALLEJERO'**

Gipuzkoako herrietako planoen gida dugu hau. Herri bakoitzeko kale eta gune nagusiak nabarmentzen dituzte. Era berean, enpresa edo denden zerrenda ere badu, baina telefono barik; horiek planoan kokatzeko argibideak ematen ditu.

**MUSIKA/ THE KAGAS ETA KAÑERIA 13 TALDEEN KONTZERTUA**

# Punk-rock estiloaren heroi

## ZELAANDA BERRIKO MOZORROA KENDU, ETA IBARREKO PUNK ZAHARRAK BERPIZTU ZIREN JAM ARETOAN

IKER BARANDIARAN

**The Kagas taldearen atzean zegoena ezkutatzen saiatu ziren arren, jende askok zekien izen horren atzean La Polla-ko Evaristo, Rip-eko Yul eta Txerra eta Kañeria 13-ko Osoron zeudela. Diskoa kaleratu eta lau kontzertu egitea erabaki zuten: Oñatin, Garesen, Bartzelonan eta Bergaran.**



IKOR KOTX

**The Kagas taldea sasoi onean ikusi genuen, eta Evaristo zaleekin *borrokatu* behar izan zen.**

Jam aretoko emanaldia The Kagas taldearen azkenengo kontzertua izango zela iragarri zuten. Haien aurretik, Bartzelonan eta Garesen laguntzaile izan zuten Arrasateko Kañeria 13 taldeak jo zuen. Aretoa beteta zegoen, eta Garagartza auzoko Kañeria 13 punk-rock taldeak diskoa aurkeztu zuen, *Miles de historias* izenekoa. Zuhaitzek, Orobenek, Osoronek, Ullik eta Egoitzek oso sasoi onean daudela erakutsi zuten. Zoritxarrez, Ullik, abeslariak, ohi baino kemen txikiagoa erakutsi zuen; agian, gogoan izango zuen Garesen hartu zuen kolpea. Kañeria 13-ren abestiek punk gordina eta abesti gitarreroagoak tartekatzen dituzte, eta euren eskaintzak oso harrera ona izan zuen. Are gehiago, Ramones, Cicatriz eta The Clash taldeen bertsioak jo zituztenean.

**EVARISTO, TAULA GAINEKO JAUN ETA JABE**

Ikusleak The Kagas ikusteko irrikan zeuden, eta ase gelditu ziren. *De legal* abestiaren lehenengo akordeak entzun ahala, jendea gozatzen hasi zen. Musikariak oso fin ibili ziren eta Evaristok oso argi utzi zuen eszenatokiaren jaun eta jabe bilakatzen dela: ikusleak zur eta lur uzten ditu, komunikatzaile hutsa da.

Ordu eta laurden iraun zuen emanaldiak; besteak beste, drogen gaineko hipokrisia salatu zuten; neonazien fenomenoa deskribatu zuten; etorkinak gogoan izan zituzten; eta eliza, egileen eskubideak babesteko erakundea, Manolo Escobar, polizia eta parean jarri zitzaien edozein gogoz iraindu zituzten. Salatzea eta iraintzea erraza den arren, Evaristo ironia eta zorroztasuna muturreraino eramateko gai da, eta emaitzak begi bistan daude.

Evaristok, aspaldiko partez, gandorra darama, eta Rip-ekoen laguntzarekin, oso abesti punkak egin ditu, abiadura, indar eta amorru handikoak. Hala ere, La Pollaren egungo ildoko kantu leunagoak ere idatzi dituzte, koru gehiago dituztenak.

Indartsu eta sasoian ikusi genituen; are gehiago, Rip-en, La Pollaren, Sex Pistols-en eta Rezillos-en kantuak eskaini zizkigutenean. Eta pazientzia handia erakutsi zuten, jende asko Evaristorekin argazkia ateratzearren taula gainera igo zelako.

The Kagas-en bukaera heldu da, baina baliteke etorkizunean The Meas proiektua eratzea! Zain izango gara.

**NIREAUKERA**



## 'GORDE NAZAZU LURPEAN'
## Ramon Saizarbitoria

**Azkenaldian, beste liburu batzuen artean, edozeini gomendatuko niokeen kontakizun liburu bat irakurri dut: Ramon Saizarbitoriaren *Gorde nazazu lurpean*. Benetan gozatu dut, batez ere, *Gudari zaharraren gerra galdua* delakoa. Intxorta mendian, goardia egiten dabil eta Zabaleta baserriko neskarekin maitemintzen da. Urte askoren ostean, bere bizitzako azken bidaia bezala, galdu zuen hankaren bila Asentziora itzultzen da. Narrazio hunkigarria benetan, literatura maila ederrari, Elgeta inguruan bizi garenondako, tokiarekiko hurbiltasuna gaineratzen diolako.** /L.K.



**Txema Barrutia**

Eibartarra da, baina Elgetako Kutxan egiten du lan. Irakurle amorratua da.

**KALERATUBERRIAK/ Iban Arantzabal**

**LIBURUA /** Itzulpena




**ON CAMILLO**

**Giovannino Guareschi**
Koldo Bigurik itzulia
Ibaizabal
364 orrialde

*On Camillo* eta *Peppone*-ren istorioetan ez dago goi mailako literaturarik; baina bai herri baten garai gatazkatsu baten gaineko gogoeta, satira politikoaren bisturiaz Italiako historiaren zatirik mingarrienetako bat urratzen duena. Horrela, azal irrigarri batez, indarkeriaren mehatxua salatzen da: ideologiak bultzatuta, *On Camillo* eta *Peppone* kolpeka ikusiko ditugu; baina gauza funtsezkoetan ados jarriko dira. Eta horren aldeko mezua eman gura du idazleak. Liburuko istorio irrigarriei ez zaie mami seriorik falta. Euskaldunondako ere badu mezurik.

**LIBURUA /** Artikuluak




**MEDIATIKA**

**Eusko Ikaskuntza**
234 orrialde

Hiru urte luze pasatu dira Eusko Ikaskuntzako Komunikabide Sailekoek koadernoaren argitalpenik egiten ez zutela. Materiala pilatu ere egin zaie, eta liburu honetan argitaratu gura izan dute. Atal honek ez du liburuen kronikarik, ezta normalean izan beharko lukeen atalik ere, baina *Kazetaritza ekonomia*-ren gaineko ekitaldiko testuak aurkituko dituzu, beste hainbaten artean.

Artikulu gehienak ez daude euskaraz. Euskaraz daudenetan interesgarria, Joxe Mari Muxikak idatzi duena: *Euskaraz idatzitako aldizkarien errolda: 1960-1999*.

**DISKOA /** Rocka




**HARROBIAN**

**Zea Mays**
Gaztelupeko hotsak
7 kantu

Euskal Herriko bandarik pertsonalenetako bat, duda barik. Oraingoan, Euskadi Gaztea saria irabazi zutenetik nahiko euri egin duenean, taldeak egin duen diskorik helduena eta neurtuena atera dute. Doinu psikodelikoak bat-batean azaltzen dira, iluntasunak eta argiak bat egiten dute pasarte askotan, gitarren pisu organikoa eta sekzio erritmikoaren malgutasuna beti goi-goian daude, eta beti gailentzen Aioraren ahotsa, alde batetik bestera melodia mugitzeko gai dena. Taldearen esentzia eta bereak dituzten elementuak islatzen ditu.

# Urt. 31–Ots. 7

**Leire Kortabarria** / Zuon ekitaldien berri iragarri ahal izateko bidali informazioa eguazteneko eguerdiko 12:00ak baino lehenago • Posta elektronikoa: **kultura@goiena.com** • Tel.: **943 76 03 97** • Faxa: **943 76 29 77**

## MATRIKULAK

### ARETXABALETA

► **Pausoka haur eskolak** ikasturte berrirako matrikulazio epea zabalduko du otsailaren 3an, 14ra arte. Argibideetarako, deitu 943 77 03 77ra.

► **Udal Euskaltegian izena emateko epea** zabalik dago, otsailaren 14ra arte. Argibideetarako, deitu 943 79 21 68 telefonora.

### ARRASATE

► **Erdu AEK euskaltegiak** hemendik eta ekainera arteko matrikula epea zabaldu du. Horretarako, deitu 943 77 03 69 zenbakira, otsailaren 20an, azken egunez.

### BERGARA

► **Akulu AEK euskaltegiak** hemendik eta ekainera arteko matrikula epea zabaldu du. Otsailaren 20ra arte izango duzue horretarako aukera. Deitu 943 76 05 18 zenbakira.

► **Udal Euskaltegian** izena emateko epea zabalik dago gaur arte, egubakoitza. Argibideetarako, deitu 943 76 44 53 telefonora.

► **Mariaren Lagundia** Ikastetxeak matrikulazio epea zabalduko du otsailaren 3an, hilaren 14ra arte. Argibideetarako, deitu 943 76 25 40 edo 943 76 25 41 telefonoetara.

### DEBAGOIENA

► **Arizmendi Ikastolak** Arrasateko eta Eskoriatzako guneetarako matrikulazio epea zabaldu du. Otsailaren 10era arte izango duzue horretarako aukera. Informazio gehiagorako, deitu 902 11 20 25 telefonora.

► **Goieskolak, Debagoieneko euskal eskola publikoak,** Eskoriatzako Luis Ezeiza (haur hezkuntza) eta Aretxabaletako Kurtzebarri (bigarren hezkuntza) ikastetxeetarako matrikula epea zabalduko du otsailaren 3tik 15era arte. Deitu 943 79 57 40 edo 943 71 49 38 telefonoetara.

### OÑATI

► **Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzarako** bere eskaintza azaltzeko hitzaldi informatiboa eta ate irekien jardunaldia antolatu ditu Oñatiko Eskola Publikoak. Eguenean izango da, otsailaren 6an, Zuazola institutuan, 18:30ean.

## MUSIKA

### ARETXABALETA

► **Kokein taldeak diskoa aurkezteko du** gaur, egubakoitza, gaztetxean, 22:30ean.

### BERGARA

► **Jean-Paul Imbert** organo jotzaile frantziarraren emanaldia izango da bihar, zapatua, San Pedro parrokian, 20:00etan, Organo Erromantikoaren Nazioarteko IV. Zikloaren ekitaldien barne. Cochereau, Lefeburu-Wely, Back, Franck, Widor eta Liszt-en piezak jokatuko ditu.

### ELORRIO

► **Mikel Urdangarin**ek kontzertua eskainiko du datorren egubakoitzean, hilaren 7an, Arriola aretoan, 22:30ean.

## LEHIAKETAK

### ARRASATE

► **Aratusteetako kartela** aukeratzeko lehiaketa deitu du Udalak. Arrasaten bizi edo erroldatutakoek hartu ahal izango dute parte. Neurria 50x70 cm izango da. Eta kartelean derrigorrez ipini beharko testua, hauxe: *2003 Haratuzteak Arrasate*. Kultura Sailera bidali beharko dira lanok, otsailaren 14a baino lehen.

► **Gazteen Kontseiluaren logotipoa** aukeratzeko lehiaketa antolatu dute. Arrasaten bizi, ikasi edo lan egiten duten 5 eta 30 urte artekoek hartu ahal izango dute parte. Jostailuak, kirol materiala eta 750 euro izango dira kategoria bakoitzarendako sariak. Bidali lanak honako helbidera: Udaleko Gazteendako Informazio Zerbitzua / Biteri etorbidea 3 / 20500 / Arrasate. Argibideetarako, deitu 943 77 00 65 telefono zenbakira.

## IKASTAROAK

### ARETXABALETA

► **Eskulan ikastaroa** antolatu du Loramendi euskara elkarteak. Otsailaren 11n hasiko da. Martitzenero izango dira eskolak, 18:00etatik 20:00etara. Izena emateko, jo udaletxe zaharrean Loramendik duen egoitzara, 16:00etatik 20:00etara, otsailaren 7an azken egunez.

### ARRASATE

► **Gorputz lan bioenergetiko taldea** antolatu du Arrasateko Yoga Elkarteak. Martxoaren 26ra arte egingo dute lan, eguaztenero, 18:30ean. Izena emateko, jo elkarteko kideren batengana.

### EUSKAL HERRIA

► **Mendiko eski ikastaroa** izango da otsailaren 15ean eta 16an, alde batetik, eta 22an eta 23an, bestetik, Luz-Ardiden-en eta Gavarnie-n. Eskola teoriko eta praktikoak emango dituzte. 166 euro ordaindu beharko dira. Argibideetarako, deitu ikastaroko zuzendariari, Iñaki Escolarri, 627 39 84 16 telefonora.

## JAIAK

### ARETXABALETA

► **San Blas eguna ospatuko dute** datorren astelehenean, otsailaren 3an. Hori dela eta, Apotza-Etxebarri auzoko Sailuente ermitan meza izango da, 10:30ean. Gero, jakien bedeinkapena izango da.

### ARRASATE

► **Extremadurako Ogi Mamien eguna** (migak) antolatu du Corazon de Encina elkarteak etzirako, domeka. Laubide plazan izango da Extremadurako plater tipiko hori dastatzeko aukera.

### DEBAGOIENA

► **Santa Ageda eguna dela eta,** ospakizunak izango dira ibarreko herri askotan. Otsailaren 4an, Santa Ageda bezperan, Aretxabaletako kintoek Santa Ageda eskea egingo dute, eta otsailaren 5ean, eguaztena,abesti emanaldia egingo dute, Herriko Plazan, 19:00etan; hortik aurrera, egubakoitzero irtengo dira abesten, Aratusteak arte. Bestalde, ordu berean, Eskoriatzako kintoek dantza emanaldia egingo dute Gorosarri plazan. Antzuolan, Santa Ageda bezperan, kintoak herriko kaleetan barrena ibiliko dira, kantuan; egun horretan, 18:30ean, abesbatzaren emanaldia izango da. Elgetan, otsailaren 4an baita ere, Elgetako eskolako umeak 14:30ean irtengo dira abestera. Bergaran, herriko ikastetxeetako umeak eta herriko hainbat elkarte kantari ibiliko dira, goizetik aurrera, Santa Ageda bezpera egunean.

### OÑATI

► **Hamabostaldi Kulturala** antolatu du Errekalde Herri Eskolak. Honako ekitaldiak izango dira datozen egunotan: otsailaren 4an, martitzena, Santa Ageda koplak abestuko dituzte ikasleek eta gurasoek, 18:00etan. Hilaren 5ean, eguaztena, Juan Mari Beltranek hitzaldi-kontzertua egingo du, Santa Ana antzokian, 18:00etan.

## ANTZERKIA

### ARRASATE

► **Zapatak** umeendako antzerki lana eskainiko du La Sal taldeak etzi, domeka, Amaia Udal Antzokian, 17:00etan.



► KONTZERTUAK

## INMORTAL LEE COUNTY KILLERS ETA BESTE LAU TALDE JAMEN

Ikasleen eguna dela eta, jaialdi berezia izango da gaur, egubakoitza, Bergarako Jam aretoan. Egun berezi honetarako, bost musika talde ekarri dituzte aretora, eta The Inmortal Lee County Killers taldea da eskaintzako plater nagusia. 2000ko udan, Chetley *Cheetah* Weise eta Doug *Boss* Sherrard-ek sortutako taldea da. *The Essential Fucked Up Blues* diskoarekin kritikaren eta entzuleen txaloa jaso zuten. Gerora, Sherrard-ek taldea utzi eta J.R.R. *Tokien*-ek ukitu berria eman zion. Bluesaren, soularen eta rockaren arteko nahasketa pertsonala da euren estiloa. Talde horrekin batera, Nuevo Catecismo Catolico, π L.T., X-At eta Cool Panic izango dira agertokian.

**Non:** Bergarako Jam aretoan. **Noiz:** gaur, egubakoitza. **Ordua:** 21:30ean. **Sarrera:** Hiru euro.

EIBARKO HIZKUNTZA ESKOLA OFIZIALA
Jardiñeta, 3 bis
20600 EIBAR

MATRIKULA LIBREA 2002/03
ZALDIBAR, MALLABIA, ERMUA ETA DEBA BAILARAN bizi diren ikasleak
- MATRIKULA-SOBREAK JASO: Otsailaren 3tik 21era.
- TOKIA: H.E.O.-eko Idazkaritzan
- MATRIKULA BURUTU: Sobrean adierazitako egun eta orduan.

N.A.N.a BEHARREZKOA DA

Argibide gehiago 943 20 06 18 telefono zenbakian edo Eskolako webgunean: www.euskalnet.net/eoieibar



## TXAN MAGOAREN EMANALDIA OÑATIN

Txan magoak emanaldia egingo du datorren egubakoitzean, otsailaren 7an, Oñatiko Santa Anan, 18:30ean, Errekalde Herri Eskolak antolatuta. Gaur, egubakoitza, ikastetxean eros ditzakezue sarrerak; egunean bertan, Santa Anan. 6 eta 12 urte bitarteko umeendako ekintza da.

### ELORRIO

► ***El amigo de John Wayne* antzezlana** antzeztuko du Ados Teatroa taldeak gaur, egubakoitza, Arriola aretoan, 22:30ean.

## DEIAK

### BERGARA

► ***Herioa eta bizidunak: ikuspegi historiko bat* izenburuko hitzaldia** egingo du Juan Madariaga Orbea adituak martitzenean, otsailaren 4an, Migel Altuna Ikastetxeko areto nagusian (Ibargarai 1), 10:30ean. *Bergara, historia topagunea* zikloaren barnean kokatzen da hitzaldi hori.

### DEBAGOIENA

► **Bizitza Sakratuaren ospakizunen barne,** otoitzaldia antolatu du Arrasateko Artzipreztaldeko Bokazio Pastoraltzarako batzordeak. Bihar izango da, zapatua, moja kontzeptzionisten komentuan, 21:00etan. Oñati, Arrasate, Aretxabaleta, Eskoriatza eta Leintz Gatzagako kristau guztiendako deia da.

### ELGETA

► ***Elgetako Mapa Toponimikoa*** aurkeztuko du egileak, Alberto Telleriak, gaur egubakoitza, liburutegian, 20:00etan.

### OÑATI

► ***Korrika 13* aldizkaria** salgai egongo da, otsail osoan, Elkar Hezi Ikastetxearen DBHko egoitzan, Santa Marina plazan. Eguenetan (17:00-18:30) eta zapatutan (11:00-13:00) izango duzue erosteko aukera. Galderarik izanez gero, deitu 945 26 90 43 telefonora.

## ERAKUSKETAK

### ARETXABALETA

► ***Drogak: gizarte-gaia* erakusketa** izango da udaletxeko ganbaran, bihar arte (zapatua).

### ARRASATE

► ***Espacios en construcción* erakusketa** du zabalik Juanjo Altuna Akizu margolariak Maala kaleko Arregi Enmarkazioak dendan, otsailaren 17ra arte.

► **Felix Ayala margolariak** margolan erakusketa zabalduko du datorren egubakoitzean, otsailaren 7an, Iturriotz kaleko Harresi aretoan. Hilaren 23ra arte ikusi ahal izango duzue, astegunetan (18:00etatik 20:00etara) eta asteburuetan (12:00-14:00).

### OÑATI

► ***Drogak: gizarte-gaia* erakusketa** izango da kultura etxean, otsailaren 4tik 9ra bitartean.

# Zinema

### ARRASATE

■ ALAI ZINEMA

***Mi gran boda griega***
Egubakoitza: 19:00, 22:00.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:00.
Astelehena eta martitzena: 19:00, 21:30.

■ AMAIA ANTZOKIA

***Lugares comunes***
Eguena, zine kluba: 21:30.

Martitzena, ikuslearen eguna.

### BERGARA

■ NOVEDADES

***El señor de los anillos: las dos torres***
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua: 17:00, 22:30.
Domeka: 16:45, 20:00.
Astelehena: 19:30.

***Historias mínimas***
Eguena, zine kluba: 20:00.

### OÑATI

■ OÑATIKO ZINEA

***Harry Potter y la cámara secreta***
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua: 16:30, 19:30, 22:30.
Domeka: 16:30, 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

***Aventuras en Alaska***
Zapatua eta domeka: 17:00.

***Yi yi***
Eguena, zine kluba: 20:00.

### ELORRIO

■ ARRIOLA ARETOA

***8 mujeres***
Zapatua: 22:30.
Domeka: 20:00.

***El planeta del tesoro***
Domeka: 17:00.

***Kamchatka***
Eguena, zine kluba: 20:15.

### EIBAR

■ UNZAGA

***Seguridad nacional***
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.

■ RIALTO

***Los lunes al sol***
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.

### GASTEIZ

■ GURIDI

***La luz prodigiosa***
Egunero: 17:30, 20:00, 22:30.

***El señor de los anillos: las dos torres***
Egubakoitza: 17:30.
Zapatua eta domeka: 17:00.

***Laberinto envenenado***
Egubakoitza: 20:45, 22:30.
Zapatua eta domeka: 20:30, 22:30.

***The good girl***
Egunero: 17:30, 20:00, 22:30.

***La flor del mal***
Egunero: 20:00, 22:30.

***Seguridad nacional***
Egubakoitza: 17:30, 20:00, 22:30.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:45, 22:30.

***The ring: la señal***
Egunero: 17:30, 20:00, 22:30.

***Transporter***
Egunero: 17:30.

***Al sur de Granada***
Egubakoitza: 17:30, 20:00, 22:30.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:45, 22:30.

■ FLORIDA-GURIDI

***Dolls***
Egubakoitza: 17:30, 20:00, 22:30.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:45, 22:30.

***El jardín de la alegría***
Egunero: 12:30, 17:30, 20:00, 22:30.

***Ciudad de Dios***
Egunero: 17:30, 20:00, 22:30.

***Spy kids 2, la isla de los sueños perdidos***
Egunero: 12:30, 17:30.

***Un hombre sin pasado***
Egubakoitza: 17:30, 20:00, 22:30.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:45, 22:30.

***Bienvenido, mister Marshall***
Egubakoitza: 17:30, 20:00, 22:30.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:45, 22:30.

***Hable con ella***
Egunero: 20:00, 22:30.

***Sweet sixteen***
Egunero: 17:30, 22:30 .

■ STER ZINEMAK

***El pianista***
Egubakoitza eta zapatua: 20:30, 00:00.
Domeka: 20:30.

***Otra terapia peligrosa***
Egubakoitza eta zapatua: 20:55, 22:55, 00:55.
Domeka: 20:55, 22:55.

***Atrápame si puedes***
Egubakoitza: 19:15, 22:05, 00:55.
Zapatua: 16:25, 19:15, 22:05, 00:55.
Domeka: 16:25, 19:15, 22:05.

***Spy kids 2: la isla de los sueños perdidos***
Egubakoitza: 18:20.
Zapatua eta domeka: 16:10, 18:20.

***Seguridad nacional***
Egubakoitza: 18:25, 20:20, 22:20, 00:20.
Zapatua: 16:30, 18:25, 20:20, 22:20, 00:20.
Domeka: 16:30, 18:25, 20:20, 22:20.

***Harry Potter y la cámara secreta***
Egunero: 17:45.

***Transporter***
Egubakoitza: 18:30, 20:40, 22:50, 01:00.
Zapatua: 16:20, 18:30, 20:40, 22:50, 01:00.
Domeka: 16:20, 18:30, 20:40, 22:50.

***Oscura seducción***
Egubakoitza: 18:05, 20:05, 22:10, 00:10.
Zapatua: 16:05, 18:05, 20:05, 22:10, 00:10.
Domeka: 16:05, 18:05, 20:05, 22:10.

***La flor del mal***
Egubakoitza: 18:15, 20:30, 22:45.
Zapatua eta domeka: 16:00, 18:15, 20:30, 22:45.

***Trece campanadas***
Egubakoitza eta zapatua: 01:00.

***Riesgo extremo***
Egubakoitza: 18:15, 20:15, 22:15, 00:15.
Zapatua: 16:15, 18:15, 20:15, 22:15, 00:15.
Domeka: 16:15, 18:15, 20:15, 22:15.

***Ciudad de Dios***
Egubakoitza eta zapatua: 18:00, 20:35, 00:05.
Domeka: 18:00, 20:35.

Eguaztena, ikuslearen eguna.

■ YELMO CINEPLEX

***Atrápame si puedes***
Egubakoitza eta zapatua: 16:00, 18:45, 21:30, 00:15.
Domeka: 11:40, 16:00, 18:45, 21:30.

***Amén***
Egubakoitza eta zapatua: 19:25, 21:55, 00:25.
Domeka: 19:25, 21:55.

***El señor de los anillos: las dos torres***
Egubakoitza eta zapatua: 15:20, 18:35, 20:00, 21:50, 23:30.
Domeka: 11:30, 15:20, 18:35, 20:00, 21:50.

***The good girl***
Egubakoitza eta zapatua: 15:45, 17:45, 19:45, 21:40, 23:40.
Domeka: 11:45, 15:45, 17:45, 19:45, 21:40.

***Otra terapia peligrosa***
Egubakoitza eta zapatua: 16:15, 18:15, 20:15, 22:15, 00:15.
Domeka: 12:15, 16:15, 18:15, 20:15, 22:15.

***El planeta del tesoro***
Egubakoitza eta zapatua: 15:50, 17:50.
Domeka: 12:00, 15:50, 17:50.

***Mi gran boda griega***
Egubakoitza eta zapatua: 18:10, 22:10.
Domeka: 12:10, 18:10, 22:10.

***Harry Potter y la cámara secreta***
Egubakoitza eta zapatua: 15:30, 18:30.
Domeka: 11:35, 15:30, 18:30.

***Laberinto envenenado***
Egubakoitza eta zapatua: 21:45, 23:45.
Domeka: 21:45.

***Santa Claus 2***
Egubakoitza eta zapatua: 15:25, 17:25.
Domeka: 12:10, 15:25, 17:25.

***Cosa de brujas***
Egubakoitzetik domekara: 16:30.

***Amigas a la fuerza***
Egubakoitza eta zapatua: 15:35, 17:30, 20:30, 22:30, 00:30.
Domeka: 12:10, 15:35, 17:30, 20:30, 22:30.

***The ring: la señal***
Egubakoitza eta zapatua: 15:25, 17:40, 19:55, 22:10, 00:30.
Domeka: 11:50, 15:25, 17:40, 19:55, 22:10.

***Transporter***
Egubakoitza eta zapatua: 15:55, 18:00, 20:05, 22:00, 00:00.
Domeka: 12:15, 15:55, 18:00, 20:05, 22:00.

***Trece campanadas***
Egubakoitza eta zapatua: 19:50, 22:05, 00:15.
Domeka: 19:50, 22:05.

***Wasabi***
Egubakoitza eta zapatua: 16:10, 20:10, 00:10.
Domeka: 16:10, 20:10.

***Seguridad nacional***
Egubakoitza eta zapatua: 16:05, 18:05, 20:05, 22:05, 00:05.
Domeka: 12:05, 16:05, 18:05, 20:05, 22:05.

***Riesgo extremo***
Egubakoitza eta zapatua: 16:20, 18:20, 20:20, 22:20, 00:20.
Domeka: 12:20, 16:20, 18:20, 20:20, 22:20.

Astelehena, ikuslearen eguna.

***Los lunes al sol: ●●●●● / Lugares comunes: ●●●● / Kamchatka: ●●●● / 8 mujeres: ●●● / El señor de los anillos: las dos torres ●●●***

TXARRA:● ESKASA:●● BALEKOA:●●● ONA:●●●● BIKAINA:●●●●●

## KRITIKA

### 24 HOUR PARTY PEOPLE

PUNTUAZIOA: ●●●●

**ZUZENDARIA:** Michael Winterbottom.
**AKTOREAK:** Steve Coogan, Paddy Considine.

Gaur egun, Michael Winterbottom da Europako zuzendari interesgarrienetariko bat: era eta estilo askotariko filmak zuzentzen ditu. Horrela, film errealistetatik *(Wonderland)* kutsu tragikozko western-ak zuzentzera pasa daiteke *(El perdón)*. Eta azken lanean, *24 hour party people*, neurritasuna neurrigabekeri bihurtu, eta oso lan original, ero eta talentuz betea egin du.

*24 hour party people* Manchesterren kokatzen da, eta hirian 70eko eta 80ko hamarkadetan sortutako rock mugimendua kontatzen digu. Zuzendariak Tony Wilson pertsonaia (bertako telebistako erreportari eta aurkezlea eta Factory Records diskoetxearen sortzailea) erabiltzen du istorioaren ardatz bezala. Pertsonaia hori filmaren narratzailea da eta leku batetik bestera, garai batetik beste batera, eta momentu tragikoetatik (musika talde baten liderraren buru-hiltzea) momentu barregarrietara (telebistarako egiten dituen erreportajeak, zeruko agerraldiak) pasatzen da. Eta momentu historikoek ere badute bere tokia: Sex Pistols taldeak ia ikusle barik egindako lehen kontzertua. Tony Wilson, berba ugari umore britainiar eta bikainarekin, geldi eta isilik



egoten ez dakien pertsonaia da: egozentrikoa, apetatsua (kapaz da daukan dirua eta ez daukana altzarietan gastatzeko), txoriburua, baina bere ideiengatik eta bere kantariengatik edozer egiteko gertu dagoena. Horrela, filmak pertsonaiaren bizitasuna du eta, era nahasian eta saltoka, leku, datu eta pertsonaia asko ezagutzeko aukera ematen digu. Horrekin guztiarekin, momentu batzuetan, ikuslea nekatzeko eta gainditzeko arriskua du, baina baita ikuslea harritzeko eta dibertitzeko ahalmena ere.

Bukatzeko, beharrezkoa da Steve Coogan aktorearen lana aipatzea. Coogan-ek duen grazia harrigarria da. Pertsonaia erupzio etengabean dagoen sumendia da eta Coogan-ek ondo baino hobeto transmititzen du ezaugarri hori. Berba egiteko duen modua oso berezia da. Tamalez, hala ere, filma bertsio bikoiztuan bakarrik estreinatu da, eta ezin izango da aktorearen lana oso-osorik dastatu.

ANTONIO ZABALA

SARE İNMO f3 inmobiliaria

Erdiko kalea 26
ARRASATE
943 79 12 79

## ETXEBIZITZAK

### ARRASATE
- 98 m², 4 logela, oso eguzkitsua eta garajearekin.
- 110 m². Hiru logela, bainugela bi, egongela eta ganbara. Oso ederra. Oso eguzkitsua eta duela urtebete berritua.

### BERGARA
- 75 m², eguzkitsua eta 3.500m²-ko lursail komunitarioarekin: parkinga, txokoa...Prezioa: 126.212 euro/ 21.000.000 pta.

### ARETXABALETA
75 m², hiru logela, egongela, sukaldea eta bainugela bi. Ganbara eta garajearekin. Oso eguzkitsua.

## ALOKAGAI
- **Arrasate.** 7 logela, 10 ohe, berogailua, egokitua. Langileendako egokia.

## LOKALAK
- **Arrasate**: Ferrerias kalean 201 m²-ko lokala salgai. Errentan hartzeko aukera.
- **Arrasate**: Altamiran 98 m² salgai. Erakusleihoa dauka eta oso ondo dago. 10.000.000 pta.

**Eskaera handiagatik etxebizitzak behar ditugu salgai edo alokagai.**

KOROSTI INMOBILIARIA

Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
Santi Kutz 8 • LEGAZPI
Tel.: 943 73 05 25

**BERGARA / Etxebizitzak salgai**
- Koldo Elizalde 85 m²
- Irizar 85 m²
- Martoko 62 m²
- ANTZUOLA: Eraikitzen ari diren elkarri lotutako etxeak.

**BERGARA / Tabernak salgai eta errentan**
- Jardunean dagoen taberna. Hornituta. Aukera paregabea.
- Jardunean dagoen sagardotegia.
- Jatetxe-taberna berritzeko.

**BERGARA / Lokalak salgai eta errentan**

**BASERRIAK**
- Angiozar: 200 m² x 3 solairu, 38.000 m²-ko lursaila, oso ondo kokatua.
- Osintxu, Gabiria, Berastegi (baserria eta borda), Mutiloa, Elosu, Zegama, Asteasu.

**Etxebizitzak eta lokalak salgai edo alokagai behar ditugu.**

**ELORRION ETXEBIZITZAK SALGAI**
94 682 11 00 / 610 20 01 14

**ELORRION ETXEBIZITZAK SALGAI**
- Apartamentu berria. 45 m². Bi logela, bainugela, sukaldea, egongela.
- Duplex berria. 120 m². Lau logela, egongela, sukaldea. 100 m²-ko loratégia.
- Txaleta. 100 m². Sei logela, bi bainugela, bi egongela. 2000 m²-ko lursaila.
- Apartamendu berria, logela bat, bainugela, sukaldea eta logela. 96.161,94 euro (16.000.000 pezeta).
- 220 m². Hiru logela, bi bainugela, bi egongela (bat handia), terraza.
- Bigarren eskuko etxea 100 m², 3 logela, bainugela, sukaldea eta jangela.
- Duplex berriak egiten ari dira. 174.293,51 eurotik (29.000.000 pezeta) 186.313,75 eurora (31.000.000 pezeta).

**ATXONDO.** Txalet adosatua salgai. Bost logela, sukaldea, egongela, hiru bainugela, garaje bikoitza eta txokoa.

**OÑATI**

**ZUBILLAGAN 800 M²-KO INDUSTRIA PABILIOIA SALGAI**
**943 71 60 91**

**ARETXABALETA**

**TABERNA, HARATEGIA ETA PLATER KONBINATUAK DITUEN LOKALA SALGAI.**
**943 77 03 08**

**ARRASATE**

**ERDISOTOA SALGAI. LEKU ONEAN. 700 M² ETA HIRU METRO GARAI. AUKERA EZIN HOBEA.**
**616 24 13 91**

# Iragarki sailkatuak

**1. ETXEBIZITZAK**
101. SALDU
102. EROSI
103. ERRENTAN EMAN
104. ERRENTAN HARTU
105. ETXEAK OSATU
106. BESTELAKOAK

**2. GARAJEAK**
201. SALDU
202. EROSI
203. ERRENTAN EMAN
204. ERRENTAN HARTU
205. BESTELAKOAK

**3. LOKALAK**
301. SALDU
302. EROSI
303. ERRENTAN EMAN
304. ERRENTAN HARTU
305. BESTELAKOAK

**4. LANA**
401. ESKAINTZAK
402. ESKAERAK
403. BESTELAKOAK

**5. IRAKASKUNTZA**
501. JASO
502. EMAN
503. BESTELAKOAK

**6. MOTORRA**
601. SALDU
602. EROSI
603. ALOKATU
603. KONPONDU
604. BESTELAKOAK

**7. ANIMALIAK**
701. SALDU
702. EROSI
703. EMAN
704. BESTELAKOAK

**8. DENETARIK**
801. SALDU
802. EROSI
803. EMAN
804. HARTU
805. TRUKATU
806. GALDU
807. AURKITU
808. BESTELAKOAK

**9. HARREMANAK**
901. AGURRAK
902. HARREMANAK
903. DEIAK
904. BESTELAKOAK

**10. RELAX**

Eguazten eguerdia arte (12:00) jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

**943 76 92 71**

**sailkatuak@goiena.com**

**PARTIKULARREN IRAGARKIAK DOAN JARRIKO DITUGU. GAINERAKOAK, 12 € (+BEZ) ORDAINDU BEHARKO DITUZUE MODULUKO.**
GOIENKARIAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

**LAN ESKAINTZA**

**ENPRESA BATEN GIZONEZKOAK EDO EMAKUMEZKOAK BEHAR DIRA TORNUAN ETA ZENBAKIZKO KONTROLEAN LAN EGITEKO. EZ DA ESPERIENTZIARIK BEHAR.**
**943 71 62 35 - 639 755 285**

**BERGARA**

**ADATS ILEAPAINDEGIAN NESKA BAT BEHAR DA.**
**943 76 49 51**

**LAN ESKAINTZA**

**˝C˝ GIDA BAIMENA DUEN KAMIOI GIDARIA BEHAR DA.**
**609 47 94 43**

**ARRASATE**

**GOZOTEGI BATERAKO ZERBITZARIA BEHAR DA.**
**606 51 62 47**

**ARRASATE**

**PERTSONA BAT BEHAR DA TABERNA BATEN LAN EGITEKO.**
**943 79 20 82**

**ARRASATE**

**LORAMENDI KIROLAK-EN NESKA EUSKALDUNA BEHAR DA ARRATSALDETAN ETA LARUNBATETAN LAN EGITEKO.**
**UTZI DATUAK SAN ANDRESEKO DENDAN**

## 1/ ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Arrasate.** Santa Marinan etxebizitza salgai. Hiru logela, banakako berogailua. Sukaldea eta bainugela berrituak. 943 77 03 56.

### 103. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** Etxebizitza ematen dut errentan San Andres auzoan. 629 42 26 54.

**Arrasate.** Grupo San Juanen etxebizitza ematen dut errentan. Hiru logela, banakako berogailua, balkoia. Deitu 18:00etatik aurrera. 943 77 03 85 edo 686 74 01 95.

**Arrasate.** Ikasle edo irakasleendako. Garaia izango denaren ondoan. Lau logela, egongela eta berogailua. Deitu 17:30etik 19:30era. 943 79 43 20.

### 104. ERRENTAN HARTU

**Bergara.** Apartamentua edo etxe txikia hartuko nuke errentan. Altzariz hornituta. 615 74 98 05.

**Debagoienean** bikote batek (senar-emazteak) etxebizitza bat hartuko luke errentan. 945 14 84 56.

**Oñati.** Neska oñatiar batek etxebizitza hartuko luke errentan, beste norbaitekin bizi izateko. 943 78 03 03 edo 677 42 58 22.

### 105. ETXEAK OSATU

**Aretxabaleta.** Logela ematen da errentan. Sukaldea erabiltzeko aukera. Langileendako aproposa. 943 79 05 26.

## 2/ GARAJEAK

### 201. SALDU

**Aramaio.** Garaje itxia salgai. 945 44 54 17.

**Bergara.** Garaje plaza bat saldu edo errentan ematen dut Ibargarain. 943 76 20 07 edo 943 76 42 57.

### 203. ERRENTAN EMAN

**Bergara.** Masterreka kalean garajea ematen da errentan. 943 76 21 39.

## 3/ LOKALAK

### 301. SALDU

**Arrasate.** Sotoa salgai. 700 m². Hiru metroko altuera dauka. Aukera paregabea. 616 24 13 91.

## 4/ LANA

### 401. ESKAINTZAK

**Arrasate.** Emakume heldua behar dut pertsona nagusiak zaintzeko. 686 54 84 12.

**Arrasate.** Emakumea behar da etxeko lanak egin eta bi ume zaintzeko. 657 70 09 59.

**Arrasate.** Zigorrolan emakumea behar da ume bat zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Martxotik aurrera. 943 77 07 42.

### 402. ESKAERAK

**Arrasate.** Astegunetan (eguenera arte), 20:00etatik 23:00etara edozein lan egiteko gertu nago. 17:00etatik 18:30era deitu. Alberto. 943 79 72 99.

**Arrasate.** Domeketan, 08:00etatik 16:00etara umeak, gaixoak edo nagusiak zaintzeko gertu nago. 17:00etatik 18:30era deitu. Angelita. 943 79 72 99.

**Bergara.** Emakume batek edozein lan egingo luke, goizez (08:30-15:00). 696 84 19 51.

**Bergara.** Neska gertu taberna edo dendaren baten lan egiteko. Astelehenetik egubakoitzera. 943 76 04 57 edo 619 87 68 86.

**Debagoiena.** Gizona gertu taberna edo jatetxeren baten sukaldari edo zerbitzari lanak egiteko egiteko, asteburuetan, orduka. 943 77 03 85 edo 686 74 01 95.

**Debagoiena**. Gizon gaztea edozein lan egiteko prest: sukaldean, zerbitzari, garbiketa lanak… (Arturo). 943 78 03 15.

**Debagoiena**. Gizonezko arduratsu eta gaztea edozein lan egiteko prest: sukaldean, garbiketa lanak, zerbitzari… (Edi). 943 78 07 43.

**Gauez** lan egingo nuke gauez lan egingo nuke, bai taberna batean zerbitzari lanak eginez edo pertsona nagusiak zainduz. Rocio. 678 37 32 43.

**Sukaldari** lanak egiteko gertu. Sukaldari edo sukaldari laguntzaile lanak egiteko gertu nago. Goizeko 11etatik aurrera egingo nuke lan. Miguel. 630 51 80 13.

**Arrasate.** Emakume euskaldun batek lan egingo luke etxeko lanak egiten edo umeak edo pertsona nagusiak zaintzen. 659 82 75 18.

## 5/ IRAKASKUNTZA

### 502. EMAN

**Antzuola.** Ingeleseko eta errusierako eskola partikularrak ematen dira. 943 76 63 10.

**Arrasate.** Behar bereziak dituzten umeendako laguntza eskola ematen da. 653 70 88 88.

## 6/ MOTORRA

### 601. SALDU

**Audi** A4 1.9 TDI salgai. 15.000 euro. 661 22 12 89.

**Citroën** ZX autoa salgai. Diesela. 1.500 euro. 670 33 68 21.

**Ford** Courier diesela salgai. Ohea du. 646 12 52 17.

**Ford** Escort RS 2000, 16 V. 150 ZP. (1992koa). Gehigarriak ditu. Esekidura (suspentsioa) eta gurpil berriak. Merkea. Jon. 605 73 86 77.

**Ford** Fiesta autoa salgai. SS-AP. Oso ondo dago. 636 69 18 82.

**Ford** Escort RX3 autoa salgai. Ondo dago. 1.500 euro. 635 71 04 55.

**Renault** Space TD autoa salgai. SS-AW. Zazpi eserleku ditu. Oso ondo dago. 140.000 Km. 609 88 51 02.

**Rover** 416 autoa salgai. 1998koa. 7.500 euro. 639 30 85 30.

**Scooter** RF Suzuki motoa salgai. 49 cm3. 600 euro. Adrian. 943 76 71 93.

**Seat** Cordoba TDI Sport autoa salgai. Joan den urtean erositakoa. Osagarriak ditu. Prezioa: 13.222 euro (2.200.000 pezeta). Negoziagarriak. 617 73 87 49.

**Seat** Toledo V5 salgai. Gasolinazko motorra. 609 47 94 43.

**Toyota** Celica autoa salgai. Ondo dago. 1991koa. 5.400 euro. 635 71 04 55.

## 8/ DENETARIK

### 801. SALDU

**Berogailua.** Fagor F-100 berogailua salgai. Ia berria. Prezio ona. 696 84 34 38.

**Bulegoko mahaia.** Haritz egurrez egindako bulegoko mahai ederra salgai. Neurriak: 140 x 80 cm. Hiru kaxoiko bufferra. 150 euro. Gauetan deitu. Peli. 943 77 01 74.

**Elurretarako kateak** salgai (neurria: 40). 10 euro. 943 76 44 37.

**Sukaldeko** altzari guztiak saltzen ditut. Oso ondo daude. Etxetresna elektrikoak eta altzariak Fagor etxekoak dira. Marmola, mahaia eta lau aulki ere saltzen ditut. Oso prezio interesgarria. 687 50 17 82 edo 650 90 09 53.

**Umeendako** kapotadun kotxetxoa, paseorako aulkia, mini-sehaska, Maxi-Cosia eta parkea salgai. Ondo dago dena. Prezio ona. 943 79 41 31.

### 802. EROSI

**Bizikleta finkoa.** Bigarren eskuko bizikleta estatikoa erosiko nuke. 699 84 35 80.

### 806. GALDU

**Bergara.** Patinete urdin bat galdu dut Sirimiri tabernaren parean. Aurkitu duenak utz dezala Udaltzaingoan edo dei dezala ondorengo telefonora. 943 76 03 37.

**Ezkontza-eraztuna.** Aretxabaletako Amets taberna aurrean ezkontza-eraztuna galdu da. Eraztunak barruan idatzita dauka: "M.C. 18-9-60". 943 79 64 93.

## IRAGARKI OFIZIALAK

**DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEA**

**IRAGARKIA**

**Hondakindegi Alternatiboaren Zaintzaile bat kontratu nahi dugu, 2006ko otsailaren 28rarte, lanaldi erdirako.**

Titulazioa: Eskola-graduatua, lehen mailako Lanbide Heziketa edo baliokidea.

Eskaerak: Otsailaren 14ko eguerdiko ordubiak baino lehen aurkeztu beharko dira Mankomunitatearen Erregistroan.
(Arrasate Pasealekua, 5, behea.- ARRASATE)
Tf.: 943 79 33 89-99

Instantzia eredua erabili behar da.

koma,

Olakua, 7 behea
20560 OÑATI
Tel.: 943 71 82 08
Faxa: 943 71 81 02

www.komalingua.com

• Azterketa Ofizialak prestatzeko ikastaroak:
Cambridge University,
Goethe Institut, DELF,
Università di Siena e Perugia...

• Ikastaro berriak urte osoan zehar

• Ikastaro trinkoak eta hizkuntza murgiltze ikastaroak



## AIPAGARRI

### Larraitz Ugarte

OÑATI



Euskal Herriko Unibertsitateak ikerketa bat egin du delituaren eta hiritar segurtasunaren gainean EAEko biztanleriak zer uste duen aztertzeko, eta astelehenean aurkeztu zituzten emaitzak. Larraitz izan da ikerketaren egileetako bat, César Manzanos EHUko irakaslearen gidaritzapean.

### Melina López

ARRASATE



Arrasateko Udalak Melina Lópezi eman dio Emakumeen Aldeko Proiektuaren Beka. Emakumearekin eta industriarekin lotutako eskultura bat egingo du Melinak. Lehenengo aldia da Arrasateko Udalak beka hau ematen duena, baina hemendik aurrera urtero emango du.

### Alberto Telleria

ELGETA



Gaur, egubakoitza, aurkeztuko dute Elgetan herriko mapa toponimikoa. Alberto Telleria elgetarrak egin du mapa hori, eta urtebeteko lana izan du mapa prestatzen. Mapa toponimikoa egitearen helburua da toki izenak mapa baten jasotzea, baita gaur egun gutxi erabiltzen direnak ere.

## HILDAKOAK

**Silvia Mayo Fernández.** Bergaran, urtarrilaren 22an. 43 urte.
**Emila Perosterena Madina.** Oñatin, urtarrilaren 22an. 97 urte.
**Angel Baños-Antigua Goitia.** Oñatin, urtarrilaren 22an. 65 urte.
**Antonia Arana Zabala.** Bergaran, urtarrilaren 24an. 88 urte.
**Isabel Pagaldai Otxoa-Aizpurua.** Eskoriatzan, 25ean.
**Vicente Mena Vallesteros.** Arrasaten, urtarrilaren 26an. 95 urte.
**Purificación Juana Irastortza Erbegi.** Arrasaten, 27an. 77 urte.
**Maria Elortza Mondragon.** Aretxabaletan, urtarrilaren 28an. 76 urte.
**Jesus Errasti Uribe.** Arrasaten, urtarrilaren 29an. 94 urte.
**Luis Francisco Merino De Garci-Baquero.** Aretxabaletan, urtarrilaren 29an. 65 urte.
**Julian Agirregabiria Marin.** Eskoriatzan, urtarrilaren 29an. 70 urte.

## ESKER ONA

Julian
Agirregabiria Marin



**Eskoriatza**n hil zen
2003ko urtarrilaren 29an,
70 urte zituela.

*Hileta-elizkizunetara joandakoei
eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.*

## ESKELA

Isabel
Pagaldai Otxoa-Aizpurua



**Eskoriatza**n hil zen
2003ko urtarrilaren 25ean.

Amaia Aranburuzabala lankidearen ama

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

## ESKER ONA

Ibonne
Gómez Gutierrez



**Bergara**n hil zen
2003ko urtarrilaren 19an,
85 urte zituela.

*Hileta-elizkizunetara joandakoei
eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.*

## URTEURRENA

Aitor
Txintxurreta Eguren



Lehen urteurreneko meza
zapatuan, otsailaren 1ean,
19:00etan,
**Oñati**ko San Migel parrokian.

*Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.*

## URTEURRENA

Felipe
Oregi Egaña



Lehen urteurreneko meza
zapatuan, otsailaren 1ean,
19:00etan,
**Oñati**ko San Migel parrokian.

*Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.*


- Atsedenean espezialistak
- Koltxoiak, kanapeak...
- Estalki, edredoi nordikoak...
- Ohe artikulatuak.

Atsedena hartzeko sistemarik hoberenak

beds®

KOLTXOI DENDAK





%20-30

MERKEALDIAK

Kalitate osoarekin

ZARUGALDE 25 • ARRASATE • Tel: 943 77 18 35

## ASTEBUKAERAKO EGURALDIA

Oskarbi · Ostarteak · Estalia · Euri txikia · Euria · Zaparradak · Ekaitza · Txingorra · Elurra · Behelainoa

**ZAPATUA, 1**

Egun lainotsua izango dugu. Euri txikia egingo du, eta 100 metrotik gora baita elurra ere. Egunak aurrera egin ahala, 800 metrotik gora bakarrik egingo du elurra. Izotza ere egin dezake. Dena dela, tenperaturak pixka bat gora egingo du. Haizea ipar mendebaldetik ibiliko da.

**Nafarroako Erribera:** Zaparradak.
**Errioxa:** Zaparradak.
**Pirinioak:** Egun euritsua.

**DOMEKA, 2**

Domeka ere oso egun lainotsua izango dugu. Euri txikia egingo du egun osoan zehar; eguneko lehen orduetan, 800 metrotik gora egingo du elurra, eta egunaren azkenerako, 1.300 metrotik gora. Tenperaturak gora egingo du pixka bat. Haizea, berriz, mendebaldetik ibiliko da.

**Nafarroako Erribera:** Zaparradak.
**Errioxa:** Euri txikia egun osoan.
**Pirinioak:** Egun euritsua.

ASTEKO BATEZ BESTEKO TENPERATURA

# 8,1º C

ILARGIAREN ALDIAK: OTSAILA

| ilberri | ilgora | ilbete | ilbehera |
|---|---|---|---|
| 1 | 9 | 16 | 23 |

EGUZKIA: OTSAILAREN 2a

**Sortu** 08:23
**Gorde** 18:20

## URKULUKO URTEGIA

**Aurten izan duen mailarik altuena dauka momentu honetan Urkuluko urtegiak. Duela bi aste %88,09 zen ur maila; oraingo astean, berriz, %91,09.**

# %91

## ARANTZAZUKO SANTUTEGIA

**MEZAK**

**Astegunetan**
08:30, 12:00.
**Zapatuetan**
08:30, 12:00, 19:30.
**Domeka eta jaiegunetan**
09:00, 10:00, 12:00 (nagusia), 13:15 (gaztelaniaz, Kriptan), 17:30.

## BEHARREZKO TELEFONOAK

((112))
SOS DEIAK

**OSASUNA / LARRIALDIAK**

| | |
|---|---|
| OSAKIDETZA (Larrialdiak) | 943 46 11 11 |
| DYA (Orokorra) | 943 46 46 22 |
| DYA ( Antzuola) | 943 78 71 57 |
| Gurutze Gorria | 943 22 22 22 |
| Suhiltzaileak | 943 78 28 00 |
| Ertzaintza | |
| Arrasate | 943 79 71 99 |
| Bergara | 943 76 53 40 |
| Osasun Etxeak | |
| Arrasateko Ospitalea | 943 03 53 00 |
| Antzuola | 943 76 62 23 |
| Aramaio | 945 44 53 40 |
| Aretxabaleta | 943 79 19 59 |
| Bergara | 943 76 24 40 |
| Elgeta | 943 78 90 27 |
| Eskoriatza | 943 71 44 52 |
| Leintz Gatzaga | 943 71 47 46 |
| Oñati | 943 03 54 30 |
| Hies Ekimena | 943 79 26 99 |
| Udaltzaingoak | |
| Antzuola | 943 76 62 46 |
| Aramaio | 945 44 50 16 |
| Arrasate | 943 79 14 39 |
| Aretxabaleta | 943 71 18 63 |
| Bergara | 943 77 91 06 |
| Eskoriatza | 943 71 44 07 |
| Leintz Gatzaga | 943 71 47 46 |
| Oñati | 943 78 04 11 |

**GARRAIOAK**

| | |
|---|---|
| Eusko Trenbideak | 943 45 01 31 |
| PESA | 902 10 12 10 |
| Taxiak | |
| Arrasate | 943 79 12 22 |
| Aramaio | 945 44 50 33 |
| Aretxabaleta | 943 79 22 33 |
| Bergara | 943 79 12 22 |
| Eskoriatza | 943 71 40 59 |
| Oñati | 943 78 03 65 |
| RENFE | 943 28 35 99 |

**DEBAGOIENA**

| | |
|---|---|
| Mankomunitatea | 943 79 33 99 |
| Abere hiltegia (Zubillaga) | 943 78 21 93 |
| Mendi nekazaritza elkartea | 943 76 25 47 |
| Nekazaritza Ganbera | 943 76 10 15 |
| Kapirixo | 943 71 63 23 |
| Zerga Bulegoa | 943 76 58 63 |
| Euskara Taldeak | |
| Debagune | 943 77 12 28 |
| Arrasate / AED | 943 77 12 28 |
| Aretxabal. / Loramendi | 943 77 09 70 |
| Bergara / Jardun | 943 76 08 19 |
| Eskoriatza / Axtroki | 943 71 54 34 |
| Oñati / Laixan | 943 71 63 11 |
| Hondakindegi Alternatiboak | |
| Arrasate | 943 77 11 43 |
| Bergara | 945 76 44 42 |
| Oñati | 943 78 36 67 |
| Kiroldegiak | |
| Aramaio | 945 44 53 35 |
| Arrasate | 943 77 16 77 |
| Aretxabaleta | 943 71 26 28 |
| Bergara | 943 76 56 41 |
| Elgeta | 943 76 82 84 |
| Eskoriatza | 943 71 53 28 |
| Oñati | 943 71 63 75 |
| Kultura Etxeak | |
| Antzuola | 943 76 60 65 |
| Arrasate | 943 77 01 05 |
| Aretxabaleta | 943 71 10 27 |
| Bergara | 943 77 91 58 |
| Eskoriatza | 943 71 46 88 |
| Leintz Gatzaga | 943 71 47 46 |
| Oñati | 943 78 03 53 |
| Udalak | |
| Antzuola | 943 76 62 46 |
| Aramaio | 945 44 50 16 |
| Arrasate | 943 79 09 00 |
| Aretxabaleta | 943 71 18 62 |
| Bergara | 943 77 91 00 |
| Elgeta | 943 76 80 22 |
| Eskoriatza | 943 71 44 07 |
| Leintz Gatzaga | 943 71 47 46 |
| Oñati | 943 78 04 11 |

## ZENBAKI SARITUAK

**BONOLOTOA**

| EGUAZTENA 29 | MARTITZENA 28 | ASTELEHENA 27 | EGUBAKOITZA 24 |
|---|---|---|---|
| 03 • 10 • 20<br>38 • 41 • 44 | 25 • 28 • 29<br>31 • 32 • 33 | 03 • 09 • 13<br>33 • 41 • 47 | 05 • 25 • 26<br>44 • 45 • 48 |
| OSAGARRIA: 06 | OSAGARRIA: 47 | OSAGARRIA: 14 | OSAGARRIA: 27 |
| ITZULKETA: 0 | ITZULKETA: 4 | ITZULKETA: 3 | ITZULKETA: 8 |

**LOTERIA PRIMITIBOA**

| Saritzarra DOMEKA 26 | ZAPATUA 25 | EGUENA 23 |
|---|---|---|
| 03 • 14 • 18<br>21 • 26 • 32 | 19 • 26 • 38<br>43 • 47 • 49 | 13 • 14 • 19<br>30 • 42 • 43 |
| OSAGARRIA: 46 | OSAGARRIA: 22 | OSAGARRIA: 29 |
| ITZULKETA: 4 | ITZULKETA: 9 | ITZULKETA: 1 |

**ONCE**

| EGUAZTENA 29 | MARTITZENA 28 | ASTELEHENA 27 | Superkupoia DOMEKA 26 | Kupoitzarra EGUBAKOITZA 24 | EGUENA 23 |
|---|---|---|---|---|---|
| **75.292** (052 seriea) | **11.185** (056 seriea) | **39.638** (031 seriea) | **93.895** (022 seriea) | **32.520** (021 seriea) | **68.623** (038 seriea) |

*Erakunde hauen laguntzaz*
Gipuzkoako Foru Aldundia
Eusko Jaurlaritza
**Antzuolako Udala**
**Aramaioko Udala**
**Aretxabaletako Udala**
**Arrasateko Udala**
**Bergarako Udala**
**Elgetako Udala**
**Eskoriatzako Udala**
**Leintz Gatzagako Udala**
**Oñatiko Udala**

## BIZI-POZA/URTARRILA

EUROA

### Euroak prezioak garestitu egin dituela eta etxeko ekonomiarendako kaltegarria izan dela uste dugu kontsumitzaileok

Euroa indarrean sartu zela urtebete igaro dela-eta, *Consumer* aldizkariak inkesta bat egin du kontsumitzaileok txanpon berriaren gainean daukagun iritzia jakiteko. Ondorio garbi bat atera daiteke galdeketatik: euroak garestitu egin ditu prezioak (%98), moneta aldaketa kaltegarria izan da gure poltsikoarendako (%45) eta, oraindik, pezetan pentsatzen jarraitzen dugu. Edozelan ere, etorkizun finantzario eta politikoaren gainean, konfiantza eta optimismoa da nagusi. Gainera, %68k uste dute euroa txanpon indartsua dela eta dolarrarekin lehiatzeko moduan dagoela.



OSASUNA

### Dieta osasuntsu batek %80 txikitzen du bihotzeko gaitzak izateko arriskua

Heriotza gehienak bihotzeko gaitzengatik izaten dira gure gizartean. Horregatik, oso inportantea da ganoraz jatea eta dieta orekatuak egitea. Ez hori bakarrik. Horretarako ezinbestekoa da ez erretzea, estres egoerak ekiditea eta ariketa fisikoa maiz egitea. Bestalde, dieta mediterraneoa delakoa gomendatzen dute adituek: batez ere, zerealak, lekaleak, frutak, fruitu lehorrak, barazkiak sarritan jatea, eta gutxiago arraina, arrautzak, hegaztiak eta esnekiak. Eta, jakina, okela gutxiago jatea. Bestalde, gizen egoteak handitu egiten ditu bihotzeko arazoak izateko arriskuak.

TABAKOA

### Zigarro paketeetan 'light' eta 'suave' berba ipintzeko debekuari, baietza

Europako Batasuneko Justizia Tribunalak bultzada eman dio zigarro paketeetan *light* berba ipintzeko debekuari. Horrenbestez, Ingalaterrako tabako etxe bik jarritako errekurtsoa atzera bota du epaitegiak. Hala, 2001ean Europako Parlamentuak eta Europako Batasuneko Kontseiluak onartutako zuzentaraua –zigarro paketeetan *light* eta *suave* berbak jartzea debekatuko duena– aurtengo irailean sartuko da indarrean.

OSASUNA

### Asma gaixotasuna duten umeen kopurua bikoiztu egin da azken hogei urteotan

Haurtzaroko asma da 14 urtetik beherakoen gaitz kronikorik ohikoena. Gurea bezalako hezetasun handiko klimetan, umeen %5-15ek jasaten dute gaitz hori. Deigarriena, baina, zera da: azken hogei urteotan, bikoiztu egin da gaixotasun hori duten neska-mutikoen kopurua. Baina zer egin horrelako gaitzak ekiditeko edo, behinik behin, ondorioak txikitzeko? Hona aholku batzuk: zigarro-kea ekidin, animaliarik ez eduki etxean, lumadun kuxin edo burukorik ez erabili, ezta alfonbra edo moketarik ere, etxean hezetasun maila %50 baino txikiagoa izan, eta polen asko dagoen sasoietan, etxeko leihoak itxita eduki.

**Eroski Taldea Fundazioaren laguntzarekin**

## 'Iparrorratza'

MARTITZENA/ **20:30 eta 21:15**

### Munduari bira bizikletaz, Eneko Etxebarrietarekin

Eneko Etxebarrieta 1999ko otsailean irten zen, bizikletaz, Gasteiztik; haren helburua, Istanbulera iristea. 2002ko abenduan bueltatu zen etxera, 45.000 kilometro eginda eta 35 herrialde baino gehiago zapalduta. Duda barik, balentria handia Enekok *Iparrorratza* saio berezi honetan kontatuko diguna. Guk lau urteko abentura ordubetean kontatuko dizuegu. Hortaz, Julen Arangurenek luxuzko gonbidatua izango du martitzenean, 20:30ean.



## 'SOS Sahara'

EGUAZTENA/ **20:30 eta 22:30**

### Errefuxiatuen kanpamentuen errealitatea

Sahararen Lagunak elkarteak kanpaina bat jarri du abian Gipuzkoan. Gure ibarreko hainbat udalen atxikimendua jaso du elkarteak, eta herritarrek emandako janaria batzea da kanpaina horren helburua. Kanpaina hori dela eta, Goiena Telebistak ere saio berezia eskaini gura izan dio Saharari. Gure artean izango dugu Gurutze Irizar, Saharako kanpamentuetan sarri egon izan den ormaiztegiarra. Gainera, *Fatimatu* erreportajea ikusiko dugu.



## TELEBERRIAK

### Aurreko aldiak baino bost milioi ikusle gutxiago 'Operación Triunfo'-ren azken galak

*Operación Triunfo* TVE1eko musika lehiaketako azken galak aurreko aldiko finalak baino bost milioi ikusle gutxiago izan zituen. Hain justu, 7.764.000 lagunek ikusi zuten asteleheneko gala. Lehen aldiko gala, ostera, 12.873.000 lagunek ikusi zuten. Gutxi gorabehera, aurreko aldiarekiko milioi bat ikusle galdu ditu *Operación Triunfo II*-k. Edozelan ere, asteleheneko telebistako saiorik ikusiena izan zen: telebistari begira zeuden %47k ikusi zuten. T5eko *C.S.I.* telesailak ere marka onak izan zituen, eta bigarren saio ikusiena izan zen. Horiek guztiak Espainiako datuak dira. Baina zer gertatu zen hemen? Bada, Bizkaian, Araban eta Gipuzkoan %80,7 ikusle izan zituen Ainhoa irabazlearen izendapenak. Ezustekoa izan da bizkaitarrak irabaztea, baina ikusleek hura izendatu zuten akademiako onena.

### GOITB aurki ikusiko da Oñatin

Laster ikusi ahal izango da Oñatin ere Goiena Telebista. Oñatiko Udalak aspaldi dauka oniritzia emanda, baina arazo administratiboak tarteko, kontua luzatu egin da. Orain, ordea, Murutik Belarrerako lotura egingo dute, eta ondorengo egunotan ikusi ahal izango dute GOITB Oñatiko etxeetan. Izango duzue, hala ere, horren berri zabalagoa hurrengo egunotan.

## ASTEKOPROGRAMAZIOA/ Urtarrilaren 31tik otsailaren 6ra

Goitb Goiena Telebista

| EGUBAKOITZA 31 | ZAPATUA 1 | DOMEKA 2 | ASTELEHENA 3 | MARTITZENA 4 | EGUAZTENA 5 | EGUENA 6 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 13:30 Gatza eta berakatza<br>14:00 Sarrera doan<br>14:30 Berriak<br>15:00 Soinuz blai<br>15:30 Berriak<br>16:00 Gatza eta berakatza<br>16:30 Emisio amaiera<br><br>19:30 Emisio hasiera<br>19:45 Gatza eta berakatza<br>20:00 Berriak<br>20:30 Astebete<br>21:00 Gaurkoak<br>21:15 Soinuz blai<br>21:45 Gatza eta berakatza<br>22:00 Berriak<br>22:30 Astebete<br>23:00 Gaurkoak<br>23:15 Emisio amaiera | 13:30 Gatza eta berakatza<br>14:00 Harmailatik tertulia<br>14:30 Iparrorratza<br>15:00 Herrilan<br>16:30 Sarrera doan<br>16:30 Soinuz blai<br>17:00 Astebete | 13:30 Gatza eta berakatza<br>14:00 Harmailatik tertulia<br>14:30 Iparrorratza<br>15:00 Herrilan<br>16:30 Sarrera doan<br>16:30 Soinuz blai<br>17:00 Astebete | 13:30 Gatza eta berakatza<br>14:00 Astebete<br>14:30 Berriak<br>15:00 Soinuz blai<br>15:30 Berriak<br>16:00 Gatza eta berakatza<br>16:30 Emisio amaiera<br><br>19:30 Emisio hasiera<br>19:45 Gatza eta berakatza<br>20:00 Berriak<br>20:30 Harmailatik<br>21:00 Gaurkoak<br>21:15 Harmailatik tertulia<br>21:45 Gatza eta berakatza<br>22:00 Berriak<br>22:30 Harmailatik<br>23:00 Gaurkoak<br>23:15 Harmailatik<br>23:45 Emisio amaiera | 13:30 Gatza eta berakatza<br>14:00 Harmailatik<br>14:30 Berriak<br>15:00 Harmailatik tertulia<br>15:30 Berriak<br>16:00 Gatza eta berakatza<br>16:30 Emisio amaiera<br><br>19:30 Emisio hasiera<br>19:45 Gatza eta berakatza<br>20:00 Berriak<br>20:30 Iparrorratza<br>21:00 Gaurkoak<br>21:15 Iparrorratza<br>21:45 Gatza eta berakatza<br>22:00 Berriak<br>22:30 Iparrorratza<br>23:00 Gaurkoak<br>23:15 Iparrorratza<br>23:15 Emisio amaiera | 13:30 Gatza eta berakatza<br>14:00 Iparrorratza<br>14:30 Berriak<br>15:00 Iparrorratza<br>15:30 Berriak<br>16:00 Gatza eta berakatza<br>16:30 Emisio amaiera<br><br>19:30 Emisio hasiera<br>19:45 Gatza eta berakatza<br>20:00 Berriak<br>20:30 SOS Sahara<br>22:00 Berriak<br>22:30 Sahara<br>24:00 Emisio amaiera | 13:30 Gatza eta berakatza<br>14:00 Berriak<br>14:30 Saio berezia:Sahara<br>16:00 Gatza eta berakatza<br>16:15 Berriak<br>16:45 Emisio amaiera<br><br>19:30 Emisio hasiera<br>19:45 Gatza eta berakatza<br>20:00 Berriak<br>20:30 Sarrera doan<br>21:00 Gaurkoak<br>21:15 Soinuz blai<br>21:45 Gatza eta berakatza<br>22:00 Berriak<br>22:30 Sarrera doan<br>23:00 Gaurkoak<br>23:15 Emisio amaiera |
| 20:30 'Astebete' | 15:00 'Herrilan' | 14:30 'Iparrorratza' | 20:30 'Harmailatik' | 20:30 'Sahara' | 20:30 'Iparrorratza' | 20:30 'Sarrera doan' |

**GOIENA TELEBISTA** / Posta elektronikoa: **goitb@goiena.com** • Telefonoa: **943 71 23 95**

## KAMERAAURREAN



***"Laranja erdi bihurtzen ari gara; hau da, etxe barruan zein etxetik kanpo ere aritzeko gaitasuna izan beharrean, gaitasun batzuk galtzen ari gara".***

**Maite Barreña** / Arrasateko emakume saila
"ASTEBETE" (2003-01-24)



***"Futbola, azken baten, zirku handi bat da, eta Piterman, pailazo bat gehiago".***

**Anartz Agirre** / ETBko kirol kazetaria
"BERRIAK" (2003-01-24)

## TELEBEGI/ Unai Loidi

### "Operación Triunfo"

Harrigarria da, kuriosoa, gaur egun zenbait telebista programak katea batetik bestera salto egiteko, eta ondorioz *omnipresente* izateko duten erraztasuna. Lehen, *zapping*-ak balio zuen, gutxienik, gustuko ez zenari ihes egiteko. Orain ez. Jo dezagun astelehen gauean ez duzula *OT*-ren finala jasan gura, eta TVE ez ikustea erabaki duzula. Alferrik! Lehen katean finala bukatu eta berehala irabazleak T5eko platoan sartuko dizkizute, zuzenean. Eta martitzenean, ustez konpetentzia ziren kate guztietako programa guztietan, bezperako jokaldirik onenak. ETBn ere bai, jakina: hurrengo *OT*-rako *casting*-a laster hasiko dela eta bizkor ibiltzeko gazteak, zioten Galdakaoko sukurtsaletik.

Gaurko telebistak ez du behar kanpotik gairik emango dion errealitate edo gizarterik. Bera da bere burua elikatzeko gai, horretarako apropos sortutako famatuekin, famatuen eztabaidekin... eta beste programa batzuei buruz jarduteko sortutako tarteekin.



# EGIN TXOTX! sagardotegietan



## Arratzain

Arratzain Zahar baserria
Arratzain auzoa / USURBIL
943 58 09 74

- Urtarriletik apirila arte sagardotegia irekita
- Urte osoan erretegia
- Janaria sagardotegiak jartzen du
- Lekua: **120 lagun, eserita edo zutik**



## Aulia

Aulia Enea baserria / LEGORRETA
943 80 60 66

- Abendutik maiatz bukaera arte zabalik.
- Bertako janaria.
- **110 lagunendako lekua, eserita edo zutik.**



## Elutxeta

Elutxeta baserria / URNIETA
943 55 69 81

- Apiril bukaera arte zabalik.
- Aste barruan egun osoan txotxetik.
- Astelehenetan itxita.
- Erretegia urte osoan.
- Bertako janaria.
- **200 lagunendako lekua, eserita edo zutik.**



## Isastegi

Aldaba Txiki auzoa / TOLOSA
943 65 29 64

- Apiril bukaera arte zabalik
- Domeketan itxita
- Sagardotegiko menua
- Arkumea (aurrez deituta)
- Urte osoan sagardoa botilan salgai



## Iturrieta

Iturrieta baserria / Arraga auzoa
ARAMAIO / 945 44 53 85

- Urte guztian zabalik
- Sagardotegi garaian, sagardotegiko menua
- Etxeko sagardoa
- Ziburuak umeendako
- Bertako janaria
- **100 lagunendako lekua, eserita edo zutik**



## Ixaun

Elosu auzoa / BERGARA
943 85 32 50

- Urte guztian zabalik
- Sagardotegiko menua
- Untxia eta arkumea enkarguz
- Bertako janaria
- **55 lagunendako lekua**



## Larre-Gain

Larre-gain baserria / HERNANI
943 55 58 46 / 616 28 78 67

- Janaria sagardotegiak jartzen du
- Kazuelak (bakailaoa saltsan eta tomatearekin),(aurrez deituta)
- Astegunetan, gauetan zabalik
  Astebukaeran egun osoa zabalik
- Astelehen eta domeka gauean itxita



## Rezola

Ipintza baserria / ASTIGARRAGA
943 55 66 37

- Apiril bukaera arte zabalik.
- Zapatu eta domeka eguerdietan zabalik.
- Bertako janaria.
- Arkumea burduntzian eta arraina parrillan enkarguz.
- **100 lagunendako lekua, eserita.**



## Uxarte

Montorra, 6
ZORNOTZA / 94 630 88 15

- Bizkaiko sagardoa
- Asteburuetan urte osoan zabalik
- Astegunetan enkarguz
- 80 lagunendako lekua
- Sagardotegiko menua

# Goienkaria ©

DEBAGOIENEKO ASTEKARIA

**Argitaratzailea:** Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 Arrasate
**Egoitza nagusia:** **BERGARA** 20570 Barrenkalea 33 • 132 posta-kutxatila • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta-e: *goienkaria@goiena.com*
**Ordezkaritzak:** **Arrasate** 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta-e: *arrasatepress@goiena.com*
**Aretxabaleta** 20550 Durana 11 • 151 posta-kutxatila • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta-e: *aretxagazeta@goiena.com*
**Publizitatea:** **Arrasate** 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Faxa: 943 79 22 93 • Posta-e: *publi@goiena.com*
**Lege Gordailua:** NA-3329/2000 • **ISSN:** 1577-1210 • **Tirada:** 21.500 ale.

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

EGUBAKOITZA, 2003ko urtarrilaren 31


## *Atzeskua*

MAIDER OSA

# Patxi Hipolito/Oñatiko gaztelekuko arduraduna

**Debagoieneko herri gehienetan gaztetxea dago; Oñatin, berriz, gaztelekua.**

Oñatin gaztetxea egon zen orain dela zenbait urte, baina ezadostasunak izan ziren gazteen eta Udalaren artean. Horren ondorioz, itxi egin zuten, eta zenbait urteren ondoren, Udalak gaztelekuaren proiektua bultzatzeko iniziatiba hartu zuen. Orain dela zortzi bat urte gertatu zen hori.

**Izenak bakarrik ezberdintzen du Oñatiko gaztelekua, ala izaeraz ere diferentea da?**

Ezberdintasunak badaude. Gaztelekuaren proiektua instituzionalagoa da. Udalak parte-hartze nabarmena du, baina printzipio eta balio batzuk bultzatzen ditu, sarritan gaztetxeetatik ere bultzatzen direnak. Balio horien artean gazteen parte-hartze zuzena nabarmenduko nuke. Azken baten, ezinbestekoa da gazteen protagonismoa, eta horretan, gaztetxeen proiektuekin antz handia izan dezake gaztelekuak.

**Orain, gainera, ez zarete kexatuko. Itzelezko palazioa daukazue eta!**

Oñatin Gaztedia batzordea sortu ondoren, batzorde horrek plangintza orokorra egin zuen, gaztediaren esparru osoa bere gain hartuko zuena. Helburu orokor horiek aurrera eramateko lehen genuen azpiegitura ez zela egokiena konturatu ginen. Hortik irten zen eraberritze proiektuaren ondorio izan den gaztelekuaren azpiegitura.

**Oñatiko itsasontziak Donostiako lemazaina behar du?**

Ez dut uste Oñatin horrelako patroirik bilatzen zutenik. Donostiarra hurreratu zen Oñatira; aukera pertsonala izan zen, lehenago, Diputazioan Gaztedia teknikari lanetan ibili nintzen-eta.

**Dena dela, asko bidaiatu eta itsaso askotan ibili ei zara.**

Gogoko dut bidaiatzea, eta Europa izan da betidanik gustukoen izan dudan lurraldea, nahiz eta Saharan eta Kuban ere egon izan naizen. Europako nazio guztiok kultura aldetik loturak eta hartu-emanak ditugula pentsatzea gustatzen zait.

**Dena dela, oñatiar bihurtuta zaude erabat.**

Izan liteke; kanpotik etortzen dena konturatzerako etxeko bihurtzen da. Bizimodua Oñatin egiten dut erabat, eta ditudan gauzarik garrantzitsuenak Oñatin bertan daude.

**Inaugurazio ekitaldian kontzertuak izan ziren. Aurrerantzean zer egiteko asmoa duzue?**

Orain, gazte batzar bat egubakoitzero elkartzen da, eta Udaleko Gaztedia batzordean hartzen du parte. Batzar horietatik, gazteek beste norabide bat markatu dute, eta ekintza mordoa antolatu. Ikastaroak, bizpahiru kontzertu hurrengo hilabeteotan, Ixuketan taldeak abian jarritako lehiaketa, gore zikloa, Galiziara bidaia galipota jasotzera, antzerki talde bat... Gaztelekuaren etorkizuna, hortaz, Oñatiko gazteen eskuetan dago.



**“Gaztelekuaren proiektua instituzionalagoa da, baina ezinbestekoa da gazteen parte-hartzea”**

**“Bizimodua Oñatin egiten dut erabat, eta ditudan gauzarik garrantzitsuenak Oñatin bertan daude”**

► *Donostiarra / 34 urte / Gazte eragilea*

## PIPERRAUTSA

### *Reala*

Madrilen ondo irabazi eta gero, Reala neguko txapeldun gelditu da, futbol ligaren lehen erdia amaituta. Txuri-urdinen ibilbideak poztu egin nau, futbolzale ez naizen arren.

Ez da oraingo hau Realak eman didan lehen poza. Gogoan dut lehen mailara igo zenean, nola eskolatik irten ginen autobusa agurtzera. Eta ez dut ere ahaztekoa lehen liga irabazi zueneko Zamoraren gola. Niretzat ez ziren futbola edo kluba, baizik nire ingurukoak irabazle ikustea.

Harrezkero ez diot futbolari kasu handiegirik egiten. Pozik hartu nuen hegoaldeko lau euskal taldeak lehen mailan egotea, eta gustatzen zait euskal selekzioak Gabonetan egiten duen planta. Hortik aurrera, esan daiteke futbolik gabe bizi naizela. Edo nintzela.

Izan ere, aurtengo Realak berriro esnatu dit arra. Eta asteburuan adi egoten naiz emaitzak jakiteko. Inoiz Realaren partida zatiak ere ikusi ditut. Eta gustatzen zait ekipo serio hau, inoren aurrean kikiltzen ez eta zorte onaren lagun egin delako.

Zelaian ondo dabil Reala, eta kanpoan hobeto. Zarata gutxi eta lan asko. Ez da sistema txarra bizitzaren edozein arlotan eta badirudi futbolean ere balio duela. Dena ez da dirua, izena eta izarra.

Neguan txapeldun, udan auskalo. Hori bai, Realak liga irabaziko balu a zer-nolako mina batzuen tripak! Hala gertatuko balitz, zilegi bekit behingoz inoren minaz poztea.

MIKEL IRIZAR


# Aniztasunarekin denok irabazten dugu

GOIESKOLA
Debagoieneko Euskal Eskola Publikoak

Matrikula epea: otsailaren 3tik 14ra

Telefonoa: 605 77 39 92
Helbidea: Elkano 10 • ARRASATE
E-posta: goieskola@euskalnet.net
Webgunea: www.goieskola.net